

XI URTEA - IV ZENBAKIA

1930 URILA-LOTAZILA

# EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK  
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

---

## ARKIBIDEA

---

«USAURI», SCHUCHARDT IZENEKO SARIA, 1929'AN  
IRABAIZ ZUEN IRAKURGAIA. ANABITARTE ' TAR  
AUGUSTIN

LAÍRAMENDIREN IZTEGIA  
Ormaetxea'tar Nikola

EL SUFIJO-GAÑI  
Eguskitza

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

DEL ACENTO TÓNICO VASCO EN ALGUNOS  
DE SUS DIALECTOS  
Resurrección María de Azkue

ORAINARTE ONGI AZERTTU GABEKO BI EPENTESIS  
Resurrección María de Azkue

AZKAINGO LANTOAREN YAÑAIPEÑA  
Resurrección María de Azkue

---

BILBO'N  
Euskaltzaindia'ren etxean  
Ribera, 5

DONOSTIA'N  
San Iñazio'ren Gufundegiañ  
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA  
Banco de España, 3  
BILBAO - 1930



## XXI U S A T E G I A N

Eri-baúan etxeek mendiak ostentzen dituzte; eritik uŕuti, beríz, mendiek etxeak ostentzen. Baño goi ura oso gora zegoala-ta, naiz txiípitiña, Usauri-ería ederki ikusten zan goitik. Mendi aundiz inguratuta ikusten zan ta zolarek zakonenean ería. Noizbait mendi-gain batean jaŕitako ería iristatu ta zulokotean erori zala esan zitekean. Etxe zuriek ardiak ematen zuten eta elizak, artzaia. Egun batzuetan oidei aztunak beeraño jetxi ta ería estaltzen zuten. Ba'zirudian ondazuloa betetzen ari zala, edo-ta, eríak ito-laŕian txaso ura legortzea nai.

Baño egun artan egualdia ezin obea. Etxeek eztimargoa artzen zuten eguzkitan. Gorañoko bide luzea bein bai zan, bein ez zan; eretena ikusi, eretena banatu; bein agertu, bein ezkutatu. Gora orduko, jira-birak zirala-ta, lo-zoroan dagoan suge zurizka ematen zuan ideak. Mendi-lepo zelai artatik ederki igaŕi zitekean uantxo-k eta irurak ibilitako jeistea.

¡Garai edeŕeko eguraztea!

Belardi goxo batean exerita Martin eta Mirele, biak alkartasunik onenean. Mirele elur-maluta esango genukean, sasoiauk ukatuko ez ba-ligu; ain zuria zitzaison soñekoa.

Martin ala ari zan :

—...ta ortatik datorkio gure eríari Usauri izena : «Uso-uri». Ikusten duzunez kanpotik datozkigu txoloma txuriak.

Ta Mirele-ren jantzi argiari begiratuta geldiro jaŕaitu zuan : «Zu ere kanpotik etoŕi zatzaigu».

Mirele-ri polita zitzaison Martin-en jarduna. Oso

bizituta zegoan. Arpegi alaia jaři ondoren onela gal-detu zion mutil atsegíñari :

—Ni usoa banintz eta zu eitzaria baziña ¿zer egingo ninduzuke, aize zabalean joaten utzi ala sarepean sartu?

—Biak—erantzun zion Martin-ek.

—¿Eta nola bada?—neska jakin-naiak.

—Elizondo-ra joaten utziko nizuke, baño nere sarean...—ez zuan bukatu.

Ordea, Mirele-k ederkí asmatu aren esan-naia. Ikusi :

—¿Eta nola jakingo zenuke zure sarean banengo ala ez?—beríro gal-detu zion.

—Ondoan zeórek esango zenuke.

Mirele-k burua makurtu ta aldameneko belaŕak esku txikiarekin tiraka moztu. Ixilune baten ondoren jaŕaitu zuan ;

—Esaidazu, bada, nola atxitzen dituzten usoak emen.

—Etxalarí-en aŕapatzen dituzten era berean—asi zan Martin—. Udazkenez etorí oi dira usoak, batez ere ipar-aizearekin, eta ba'doaz pilaka itxasotik ego-alderat. Batzuetan uso-samalda izugarría izaten da. Alakoetan guztiak batean ilda eroriko balira, luŕa zurituko lukete; aidean diojazela askotan gerizpe itzala sortzen dute eguzki-azpian.

«Antziñako uso-eizkera au liliuragaría da. Uso zerenderi begira bai atsegín egoten dala. ¿Ikusten duzu auzko itxas-egi aláik nola agiri diran? Andixe etortzen dituzu. Sareak, beríz, lepo-saŕera onetan egon oi dira, zugatz orien eta onuntzkoen arteko aizebidean. Abe batzutik lotuta xifika batzuen bidez erori. Andik onerakoa sarebide zabala duzu, mendi-alde aundiak baztaŕean. Ora-ba' eiz-tokia».

«Ikusi orain eitzariak. Ba'dira abatariak, trapariak eta sarezaiak».

«Abatariak dituzu mutil koskorák edo gaztetxoak. Abatariet eun zuria makil baten mutufea izaten dute eta tutu bat ere bai. Abatariak urutieneko txokotan egoten dira, tarteka. Ezker-eskubi ba'dira iru-lau abatari alde bakoitzean, azkenekoak emengo aldean».

«Trapariak, beriz, onuntzago. ¿Ikusten dituzu or bat, an bestea... aritz galduroan etxoltxo lerdenak? Or egoten dira trapariak. Lau trapari dituzu. Ok izaten dute árabeteko pala kizuzzatua, karearekin zuri-tua, ta saski bat».

«Sareak sei dira ta sarezaiak beste ainbeste. Gorgonio-ren sei zakurek bezela bakoitzak bere izena ba'du: elutra, meára, ustekabia, jortuna, kalamua ta munua. Sarezaiak orma baten kerizpean egon oi dira ezkutaturik, bakoitza bere sarea zaitzen».

«Abatariak, trapariak eta sarezaiak argia asi orduko beren tokietan egoten dira ta ilunak ortxen aírapatzten ditu».

«Ezkutune ortan dakuszun etxolean ikusleak gor-derik egoten dira, oén eizkera poli-polita ikustera etofi-beriak».

«Alako batean «¡usoak, usoak!», «¡atozte laister!» ta saíerazten dituzte».

«Ona nola izan oi dan uso-eize txoragaría :

«Abatari hategiak ba'dakus uso-samalda itxas-gañe-tik ta tutuz adieraziko du nontsotik datoén eta nora dijoan. Aguro ikusiko dute trapariek eta bereala esango die laguneri non dan, nora dijoan eta multso txikia ala aundia dan....»

Martin eta Mirele-ren ondotik ba'zioan baserítar kaxkar bat eta zer ari ziran igañita bat-batean asi zitzaien :

—Bai, jauna, bai: andixe etortzen dire. Usoak *leño-leño* azaltzen direnean, abataria *tu-tu-tu-tu-tu...* asten da. Trapariak ikusi dituanean «Larékoa yoizak» eraiten dio abatariari ta onek su ta gar *juré!, juré!, juré!, juré!...* bere abata *dingi-danga, dingi-danga* dantzatzuz. Abatariak ekañi ta bideratzen ditu usoak eta sare tokirat balin ba-doaz ixilik utzik dituztie trapa-ondo arte.

«Uréna traparieki pala emanaz *xfxt, xfxt*, botako die bertzea ta bertzea *iii-uuauauauau!* oyua ta gañesia dagiela sarerat sartu arte ta *blanba!* antxen botako dituzte sareak eta luŕean iraulka ibíliko dire sarepetik egatu nairik. Alperik, ordean; sarezaien eskuetan dire beilaxe ta saretik ateri-ala *árasta, árasta* bizirik doazi oken zoŕotarat eta otik etxola ala sare bere-xirat».

«Ta sare-gañetik ala sayestik iges-bidea artzen dutenak, an dituzte *tinpi-tarpa* izkilodun eitztariak. Izkihoa bizkaŕean ameka amaren seme ba'dabil ondikoz. Áratsu on, pasatu ongi».

—Agur gizontxoa—erantzun zion Martin-ek.

Bi oinka egin zituaneko Martin ta Mirele arpegiz-arpegi jarita par gozoa ezpañetan.

Notin bat iŕi-antzean iduri onekoia izan oi da. Iŕia arpegiaren ederkuna da. Arpegi iguingaŕienak atsegiríñak biurtzen dira iŕiz daudela. Biotz oneko notiñak geienean iŕizaleak izaten dira, edo-ta, iŕizaleak geienetan biotz onekoak izaten dira. Paŕa darion bitartean ez da bildurgaŕirik. Ta Mirele neska lirain eta polita ba-zan, igaŕi Martin-ek zer ikusi zuan. ¡Aren arpegi txuri leguna, begi garbiak, sudur me ta ezpain goŕiak! «Gaztetasunaren luŕin gozoa», oskailariak esan zeza-keana. Doi-doi zimurtu zitzaion kopeta paŕ-egiterakoan. Mirele-ren kopetak zion neska ona zala. Gañe-

tik ile orixka ongi ofrastua. ¡Nor ausartuko litzake buru ura ikutzera!

Ez da bada aritzekoa Martin aal zuana begira egotea. Iría ezpañetan aitu zitzaien. Martin ala ere begira. Mirele-k burua makurtu. Ixilik zeuden.

Orain Martin ari zan belarāk mozttutzen. Burua baztaíera begira beatzeri eragiten zien. Zerbait esan nai zion.

—Gaurko eguna ez zait beñere aztuko—asi zan—. Egundaño ez dut nere burua ikusi onen ongiz. Zorion osoa atxitu nezake. Gaitua nagoala diot. Baño zorion orek, zilarbizaren gisa dabilkitela, aldizka poza, aldizka ituna, ematen dit. Ta ituna ematen didanean ere alako naigabe gogozkoa zait. Ez dakiteneba oraingo itun au zer dala-ta nere biotzean dabilen. Agidanean ba'dakit eta ez nuke nai jakin, ba'daukat eta ez nuke nai izan. Bildur ikaragaría ematen dit uts-egiteak. ¿Mirele, ofén uruti zagoke neregandik?

Bat-bateko erazo arek zerbaitxo lafitu zuan Mirele. Jakiña ez-jakin onela itzegin zion :

—Erdiak ez dizkitzut ulertzen. Alkaŕekin egonda uruti gaudela baderizkiozu... Itunki baño pozik naiago zaitut. Nik naiago dut zure atsegin izan ez zure kalte.

Ta ari ura beatzarekin alderatuko balu bezela,

—Ta uso-eizeaz ari giñala ez zuk ez gizontxo arek (paŕa zegian len bezela) ez didazute esan zer dala-ta palak botatzen dituztenean usoek beerakoa egiten duten—galdetu zion Mirele-k.

Naiago zuan Martin-ek orain-oraingo izketari jaŕaitzea; baño Mirele-k agintzen eta aren esaneri begiratu bear. Gero ere arituko ziran eta lnork zekian, nork...!

—Palak botatzen dituztenean usoari egazti aŕaparia iruditzen zaio ta igesbidea beetik artzen du

—zesaison—. Aldiak ba'dira, ordea, pala artzen ez dutenak, agitz gogoárak datozenak eta orduan alper goñian aritzen dira lanean usazale gaxoak, bele zaŕak aña axola diote palari. Baño ondo etoŕita ere ez da eunetik, ezta geiagotik, ez da bat erortzen; ala ere astean milakoa sareratua ba'daukate. Igari nolako samalda ikaragáriak joaten diran.

—Eizkera ori oso polita da —zion Mirele-k—. Txoloma txuriak sarean bizirik askoz ikusgáriagoak dira tiroz ildakoak baño. Oso nago eizkera oren antzeman. Ala ere naiago nuke neronek ikusi izatea. Baldin nere aitari eskatuko banio, sasoiz oneratuko nintzake; baño aitarekin berarekin etoŕi bearko nuke... —txirístatu zan esatea.

—¿Alegia gu biok obeto giñakeala?—eldu zion mutílak.

—Ez... ez nuan ori esan nai. Ba'dakizu... nere aitak ez dakiala zuk bezin ondo emengo beri. Arekin ez nukeala ikusiko zurekin bezenbat gauza. Gu ibilkoiagoak gerala, asper gaitzagoak...

—Zure aitaren laguntza ala nerea zein duzun naiago galdetu gabe eta uñengoa uñengorako utzita, esaidazu, Mirele, ¿pozgaría zaizu gu biok alkaŕekin egotea?

—Nola ez onen toki politan ta oren giro edeŕarekin?

—Ez dizut ori esaten —zion jaŕaikileak—. Ni neroni naizelako, edo-ta, beste edonor ni baño geiago jakiňa ta egualdi obearekin ¿naiago zenuke?

—Ez, naiago zaitut—azkenez aitortu zuan Mirele-k.

Martin-en poza ez da ukatzeko. Gogoz artuko zion eskua ta bete-betean estutu. Biotz-baŕendik esker bero-beroak zemazkion alako neska zintzo ta txukunari. Gero ta bertago zitzaison lengo uñufitasuna.

¿Zoriona abo-beteka edango al zuan? Jadanik an bertan zegoan. Diruaren atsegiañak ez dira ezer eztidario oren aldean. Txurupaka asi zan. Beste edonor baño naiago omen zuan bera. ¿Norañoko maitasuna ote zion? Urengo egunean ba'zioan Elizondo-ra. ¿Eta sarea? Leiatu bear zuan eta leiatuko zan. Egun berean banatuko zituan azalak eta mamiak. Eta zion:

—Ni zeñen pozik nagokizun...

—¿Ez duzu esan itun zaudela?

—Aldizka itun, aldizka pozik. Nere biotza batzuetan zimur, bestetan amor ematen du. Nai zinduzket, enea. Ez dakit nere adiskidetasuna nolakoa zaizun. Ez da adiskidetasun utsa. Zer beste geiago. Eta audiago. Nere «tasun» ořek oren ideko «tasuna» beařekoa du. Zuk ezik iñork ezin lezaioke eman. Ořetxengafik, «tasunez-tasun» ariko ez bagiña, ni atsege; ořelakorik balitz, ni atsegina. Zuk nere atsegiañia izatea naiago duzula esan duyunean ¿ořelakorik esatea uste al zenuan? Ez, noski. ¿Esango al zenuke?

—Zu ari zera; baño nik ez dakit nola esan. Zure «tasunik» ez dakit—zion Mirele-k.

—Ona bada, ni zurekin edonorekin baño atsegiañago nago. Ni zu gabe osatu gabe nago. Nik egunez eta gaezauzkat gogoan... biotzean, orain eta len: enparantzako ituri-ondoan, eskaratzako arátsalde artan, zubitoan giñanean eta baita ere... Donibane-ko egun gaxo artan. Ni biziko ba-naiz bear zaitut. Nik, zu gabe, nukeana nukeala, ez nuke ezere. Nik, bein batez esango dizut, nik maite zaitut.

Biak ixilik gelditu ziran. Martin-ek eskua artu zion Mirele-ri. Puxka batean eskutik artuta egon ziran.

—Ondo ba-derizkiozu abiatzea, ilunduko du-ta—galdetu zion Mirele-k.

Zutitu ziran, belaunetako nagiak kendu ta etoñi ziran toki beretik azken-eguneko azken-bidea artu zuten.

Beraka zijoazen eta eguzkia ere bai. Doi-doi mendietako gaña uñatu zuan. Usauri-efixka polita mendi-gerizpeak arapatu zuan. Eguzkiak artu, gerizpeak artu, ura beti an.

Egun artan Usauri txikiak iñoz ez bezelako lñura zeukakion biko gazteari. Atsegina gañezka, zoriona tontorka, pozik zijoazen maldatik beera gero ta auñerago. Martin-en itzak ez ziran alperikakoak izan. Igarí zion. Aal zuan ondoen, gero ta geiago, jarduna maiteago zeramakion. Mirele-k Martin gogozkoa zi-tzaiola aitortu zuan.

Ta ibilian-ibilian, eñira irixteko garaian, Martin-ek onela galdetu zion Elizondo-ko usoari :

—¿Maite al nazu, Mirele?

Ixilune baten ondoren neskaren erantzuna :

—Sarezai yayoa zagokit.

## XXII

### ESANAK ESAN, EZ GEIAGO

Irakurgai batek ez luke azkénik izango aria eman-da-eman eta mendez-mendeko, ordez-ordekoekin jaíaitu bear ba-genuke. Eta baldin emen aipatutako orietara bakarik meartu edo estutu bearko ba-gintzaizkieke, orien il-arteko gertaera ta egiteak emen edestu bearko genituzke. Ta orduan auxe gerta zitekean: liburu onen egilea gazte xamaña dalarik, aiek guztiak baño lenago iltzea, oraintsu gertatutakoekin ari bai-gera. Ta naiz nik aiek guztiak aña bizi nai izan, ez dut uste nitekeanik. Orez gañera ene irakurgai luzea gutxik erosi aalezkoa litzake. Ta kondar guztiak aipatzekotan gure ituriko emana zikundu, jakingarien atsegina atsekabe biurtu ta gure irakurgaia nekagarria ta asperkoá. Óréngatik ez ditugu esan zer oartu ez duten askorik, eta bai, gure ustez, irakurleari atsegin zezaiokean askotxo; zer lasto, zer ale, irakurgaikiñek baia aundia bear. Bear auf eta gera akit, bear ez aut eta ken akit.

Eta onetan geratu gera. Orain arteko esanak nik zuri edestutzekoak nizkitzun, irakurlea. Geroztik zerbaït geixeago jakin aal izan dut; baño ez noakizu, beti bezela, me ta lodi, xe ta lañi, guztiak esatera. Agidanean zu oso zaletuta zaude emengo zenbait gertakizunen bukaera jakiteko.

Ba'dira edestietan zer ikusi gutxi duten notiñak, beñolakoan alako gertakizun batean laguntza eskeñiz etori ta artu genituanak; oriek txikiak eta urutira bezela ikusten dira. Geienaz ere, maiz izatekotan, ur-axalean txuriak egiten botatzen ditugun ugariak

dirudite, ur-azpian ezkutatzen dira ta ez ditugu geiago bear izaten. ¿Zer ajola digu Manuel-engandik zilar-giñaren aldean? ¿Zer Aránopoleta-gatik Antonio-ren truke? Juantxo bera, oargaría zitzaiangularik, zakon erdian gelditu zaigu, ez gora ta ez beera; ez dugu aren beñirik jakin. Paulino-k eta Katamotza-k ez zuten geroztik alkar ikusi. Josune-k ez al digu ardura geiago Ester ta Bitorene-ren mari-mutilkeriak baño? Andre Axentxi, Krexentxio...

Beste aldez, eretoreen biziera baño gauza lauagorik, berdiñagorik, iñoi zikusituzte? Etxetik elizara, elizatik etxera, eriko urtearen egunik gogoragañienetan eritañen buru azaldu, jaiak jaituko ba-dira. Alkateek gauz asko legizkike agintzaldian: onak eta txañak, samiñak eta pañeragitekoak. «Alcalde tonto, sententzia pronto», «Gogoñena alkate»... ta orien antzeko esaerak zerbaitetik datozi. Baldin gureak askoen egitekoak egin izan balitu pozik edestuko genituan; baño gurearen lanak, lanean aritu gabe nola bizi. Apaizek, beñiz, ez dute makilariak ibiltzen, ez-eta ez dira auteskundetan (elezioetan) sartzen. Aien indar guztia elea da, itzaldia da; etori nai ez duana ez dute ekartzen. Aien lana, batez ere, buruzko lana da, sarigariagoa da; eriaren gaitzak nolakoak diran, nola sendatu litezken, beartsuak ba-dira, edarizaletasuna ba-da, dantza lotua ba-da. Ta oretxengatik Don Inazio-retzaz esan ditugunak ongi esanak daude. ¡Alajaña, ez gaude guztiak jaun ura bezelako gizon zintzo, apal ta ongileak!

Oskailariaren buruz asten ba-gera... Igizajoa, ia txoratu zaigu! Árotzaren jardunak gaitz egin zion. Bere bizitzako egunik edeñenak orduantxe igaro zituan. Árotzarekin ibili zituan gaiak begizkoenak zituan, geien atsegina zitzaizkionak. Baldin len jakidi-gai ori-

etaz bere burua eriko bildegia bakaña uste ba-zuan, gero are geiago. Árotzarekiko eleketak bere ustea sendotu zioten, bere jakintasunaz txinistu ta Einstein-en ustari zañak ikasten asi zan. Ofetarako, ordea, lendanik zerbañitxo gaitua egon bear, malaz-malako ikasketak egin bear, ta gure oskailariak iritxi-eziñeko ezkutuetara jota, etsi beaÑean, gero ta geiago zaletu ta txegosi ezin zitzakean arloak iretsi. Orain sendatzeko edo áras txoratzeko aukeran dago. ¡Jainkoak lagun!

Baño, batez ere, irakurleak jakin nai lukeana Mirele ta Martin-en maitasun-arazoaren bukaera. Guk emen esandakoa orain gutxi dala gertatu zan. Or utzi genituan biak bata bestea gabe ezin bizi. Aien alkarkunde goxoak guri ere biotz-ikutua egin zigun. AsaÑe edo kopetilun egoten ziran bakoitzean, gu ere goibeldu; zoriona berekin ba-zuten, gu alaitzen gintzaizkien. ¿Aidean erori-zorian zeuden zartako guztiak Antonio-ri gaÑeratzen zitzaiZkiola? Guri ezerez. ¿Zilar-giñak paÑa beste lanik ez zuala egiten? Ezta deus ere. Baño gure bi gazteen maitasuna, bai. Ala izan oi gera guzti-guztiak liburuetan edo uruti ikusten ditugun maitaleekin, aien alkár ongi-aditzea naiago. Ez, ordea, bestela; izaten dira geren artean begi-aureko maitaleak bekaizkeriz ikusten dituztenak.

Dana-dala, gure bi gazteak iñori kalterik egin ezik (ajola zien besteengatik), politak eta zintzoak zitzaiZkigun. BaÑengo mamitik ezagutzen genituan. Martin-ek Mirele maÑatzea nai genuan eta Mirele-k orobat. Uskeriren bat kezkatu ote zitzakean bildur giñan. Usategiko aÑatsalde arek pozik utzi ginduan. Eta ori orain asko ez dala jaso ba-zan ¿zer geroztik?

Martin eta Margarite anaitzakoak dira. Bi ilabete ere ez da izango Martin eta Mirele Elizondo-n ezkondu

zirala. Usauri utzita etxeratu zanean buruko mototsak korapilōtu egin zituan.

Itza-pitsa, an utzi genuan arotza Tukulu-eneko eskaratzean neska batzuen erdian. Onetzaz bai ez dugula geroztik ezer esan. Artean zerbait ba'zan esatekoa. Arotza Tukulu-enean zegoan ostatuz. Ostatuan etxe oneko semea zala zekitela, beste gañerakoek alkafekin bantzuten ba-zuten ere, arotzak bakařik; orez gañera etxeko alaba zafena jarri zioten neskame. Josune-k guztiekin adeitsua izatea berezkoa ba-zuan, arotzarekin are geiago. Ostatuko jakirik onenak etxeko neskarik politenak zekarzkion.

Arotzari, noizpeinka zerbait esatea beařezkoa iruditu zitzaion; ez zitezela, beintzat, beti ixilik egon. Berak oi zuan bezin garbi, au edo ori dala, beti ba' zuan itztxo bat esateko aukera. Josune ere ez zan motela, ta esana-esanagatik oso atsegina zitzaion arotzari. Neska polita bera ta ifi-par arekin txoragařia jartzen zan. Arotza zaletu zitzaion. Jatorri ta iduri oneko gaztea zalarik, Josune neska edeřaren diňa ba' zala uste izan zuan.

Izketa gero ta auérago zeraman mutilak. Aal zuan maizena egiten zion eta nolabaiteko gaiak utzi ta bere aldeko arloak ikutzen zituan. Gero ta geiago. Baño arotzak oartu zuanez alako mugatik auréra ez zijoan beñere Josune. Arotza azkara zala, baño ezin aterazi Josune-ri iñoren auŕean esango ez zituanak. Josune-k axaletik bai, bařendik ez.

Arotzak kabi utsa arkitu. Arotzak ikututa erabakia artu zuan : ez zuan bada jokatuko mugaz arunztik; muga-bitartean, biziki.

Egun batzuk igaro ziran. Iñork ezin zezaiokean igaři arotzari arpegiaren azpian zer zerabilkian. Orain

Josune-ren txanda zan. Orain bai bereganatu zitzaiola. Gau aietan loa gutxitu zitzaison. Baño alpeñik. Beste bi egunean egon zan arotza ostatuau. Beti adeitsua, eratsua, gizatsua ta begitarte oneko; baño joan egin zan. Neskame-sari naroa utzi eskuan eta... etoríko uřengoan.

¡Josune gaxoa!

Bigařen kanpotarāk «poto».

Azkenez, Antonio-k josteko makinak eta fonografoak saltzen egindako zořak ezin berdindurik Prantzira aldegin zuan.

Zilargiňak bein Sesiotegi-n izugarízko edatea egin zuan. Ustegabean zan aña luze erori zan, bat-bateko. Guztiak pařez asi ziran; ez, ordea, nagusia.

—Zuek zerate gañeko emen gertatu danaz—esan zien—. Gizon au oera daramakit.

Moskor-miňak jota oa-zapiak busti-busti egin zituan izardiz.

Il egin zan.

## LARAMENDIREN IZTEGIA(1)

Gaur eguneko jakintsuak Laŕamendirenean ontzat artzen dutena

Gaur zuen auréan itzegiteko aukeratu dedan gai au, alpera ta paŕagaŕia idurituko zaio jakintsuren bati. Laŕamendiren iztegi ofetaz ezer onik esan al diteke? Furfuriaka ta aize-poteka asiko dira noski. Bai nai ba dute. Oŕako gaurko jakintsu aŕo oiek esan dutena irakuŕi ta ere, Laŕamendik zerbait erakutsi dit, neri beintzat.

Laŕamendiren lana aundia da, asi izatea besterik egin ez ba lu ere. «Asiak egiña dirudi, egiñak uŕe goŕia» dio esaera zaŕak, eta Laŕamendi asi zan eta Laŕamendiri zor diogu, balin ba da, orain dakigunetik asko.

Zer izan zun Laŕamendik okeŕik edo oztoporik aundieta? Gaur eguneko jakintsu oiek dutena berbera. Bai, alegia, diote, euskera izkuntza berekia da, oraindañokoan etzaio seniderik edo gurasorik edo aide-rik azaldu; baiña asten dira euskera itz bakoizka ta esaera bakoizka laŕutzen, eta ez diote laŕurik, ez mamirik, ez ezurik ustean : lapuŕetakoa dula-ta kendu egiten diote bere izate guzia.

Laŕamendik ordea, guzia euskeratik atera zigun. Ba dakite, noski, orain itz au edo beste ori euskerari kendu nai diotenak, gauza jakiñik ez ditekela askotan

---

(1) Lan eder au, A. Lafamendiren jaiotefian, Andoain-en, euskal-jakintsu ofen omenez egin ziran jailetan irakuŕia da..

esan. Euskeraren itz au latiñetik ote da? beste alako erderatik ote da? Itz batzuk ba dira agirixkoan andik artuak, beste batzuk antza dute, ta beste batzuk ba lutelazkoa. Azkeneko ok, diodana, gauza jakinik ageri ez ta ere, atzimurka atzimurka kendu egiten dizkiote euskerari.

Ta Laŕamendik berak ez al zekin, ez al zan oartu euskeran itz aŕotz asko sartu zala? Bai noski, baiña iztegian bakoizka jartzean, euskerari egokitzen dizkio: bere alde, alegia... oraingo jakintsuak bezelaxe. Biotzak darama euskeraren alde itzegitera, ta ez da pekatu laŕi laŕia.

Ez ordea neri iduritzen beti beti benaz eta egiz ari danik. Laŕamendi askotan beraizik ari da; bere buruaren gaiñetik ere paŕa egiten du; zergatik ez Mayans' en edo Armesto'ren lepotik? Nonbait esan zun berekiko. Nik esana gorabera, atzeŕitar oiek ez dite begi emango ala dan ez ote dan. Etzeukaten aintzat euskeria ta ikasteko asmorik ez iñork. Esan dezadan bada olako ta alako, ta ni nagusi. Ez al zaizue iduritzen?

Laŕamendiren eta euskeraren etsaiak, nai zutena esateko, aboa jabe zuten; erí asto bat giñela euskaldunok : «asna nación»; izkuntza tartaila, arlotea, gozakaitza gendula; geron eríaren jabe giñela adierazteko asmatu gendula, ta nik dakit zenbat olako astakeri. Auzi ofan gertatzen dana, bear baiño auŕera-xego sartu, bear baiño geixego berotu, batzuk eta besteak ere.

Baiño Laŕamendik ez al zun siñisten berak iztegian elkarén ondozka ipiñitako itz oietan bat bakaŕa ere euskerarena e-tzanik? Ez egieki. Iku zer dion : «euskerari erauntsi zaizka gaztelaniatik, latiñetik edo beste izkundeetatik itz asko, baña adituaz ta oituaz, euskerazkoa bezin ongi aditzen diranak; eta itz oriek

utzi bear eztitugu, ta bear-bada noiz edo beríz obeko da onelakoak usatzea euskerazkoak baño, batez ere Eliz-gauzefan eta gure animen salbazioari dagozten egikarietan. Lajatuko ditugu erbesteko itz oriek, nai ba degu, gure euskerarenak pixka bana usatuaz ta erabiliaz, eskukoi ta jakiñak egingo diranean. (Aita Mendiburu'ri euskeraz, Loiola'tik, 1747'garén urtean).

Baiña—esan lezake norbaitek—: or esandako ori iztegian barnen nola aztu zitzaion?— Eztitzaitzien aztu, adiskidea. Iztegiaren itzaúrean edo saíeran ederki erantzuten dio Mayans jaunari. Edozein izkuntza, bat eta bera izateko, ez omen da gauza beára, beti itz batzuk izatea: galdu omen litzake banaka banaka guziak, eta alare izkuntza ořen joskera, tajua, berdin gelditu ezkerro, lengoa omen da. Ederki esana; baiña luzatuko ba naiz ere, Laŕamendiren beraren itzak aterako ditut, erderatik euskeraratuta. Oker ari zera Mayans, eta adieraziko dizut beingoan. Esate baterako, *alako* gizon ez da *alako*, aragi zati quek edo beste oiek ditulako; zati oiek bizten ditun anima bat bera dalako baiño. ¿Ez al dira bat Peru gizen dagonean eta mei dagonean? gazte zanean eta zartu danean? besoduna naiz besamotxa danean? Gaztetandik aragia aldatuko zitzaion noski, ta badakigu, odola berítzen dan bezela, aragia ere berítzen dala osotara, urte asko gabe. Peru ez al da lengo Peru, aragi bera ez izanagatik? Berauxe gertatzen da izkuntzetan ere. Itzak aragia bezela dira; aragia aldatzen dan bezela aldatu ditezke, osotara ere galdu ditezke; baiño izkuntza, izkera, izkuntza ořen joskera, tajua, arnasa, au da, anima, len bezela geldi diteke. Adieraziko al digu bada Mayans'ek, euskerak itz banaka guziak galdu ba litu ere, euskeraren joskera, arnasa, anima, galdu dala? Au dio Laŕamendik. Eta beste nonbait. Euskalki

bakoitzak, Napañoakoak, Bizkaikoak, Gipuzkoakoak Lapurdiakoak, Zuberokoak, itz asko bakoitzak eta bereak izan ařen ȝez al dira guziek euskera?

Atozkit, Mayans, Izaŕaitz mendi ondora, ta esa-idazu. Ukatu al dezakezu mendi au zaŕa dala?—Ez noski. Baiña nik esango dizut. Olako ta alako arkaitz aŕobi, tartaka, laŕatz, osto, zoko, aspaldi aspaldiko urte aietakoak nun ditu? Zure ariora, Mayans jauna, ezin dakigu ke Izaŕaitz mendi au orain mila urteko ura bera danik. Ikus nora zaramazkian zere burubide oŕek? Zu ere lengoa bera al zaitugu? lengo besoak, zangoak, aragiak al dituzu? Zati batzuk batzuk galdu ba dituzu ere, edo aldatu bazaizkizu ere, lengoxea zera, orain ogei urtekoa zera, ordun baiño jakite geixegorekin, eta baita euskerarenganako griňa txar geixegorekin ere. Euskera lengoa ez danik ez diteke bada esan, itz guziak banaka banaka aldatu ta galdu ba litu ere. Lengo tajua, joskera, borobiltasuna, aransa, aski ditu lengo izkuntza izateko. Ikus berak erde-ratz nola dion, ni nere burutik ari naizela noribait iduri ba zaio : «...una lengua viva es determinadamente tal, por su forma determinada, esto es, por su arte, construcción y armonía, y por estas y las otras voces que pueden coordinarse con aquella determinada construcción, arte y armonía, de manera que para que el vascuence sea determinadamente tal, es preciso que sea una misma su forma, esto es, su arte, coordinación y armonía; pero no es preciso que sean unas mismas sus voces, y teniendo una vez el vascuence las voces bastantes para ejercitar su arte, construcción y armonía, puede adquirir otras, perdiendo las primeras, y mantener su inmutable armonía». (CLXXIV). Nork esan du au gure egunetan ere Laŕamendik bezain egoki?

Galdegiten du Laŕamendik Mayans'en kontra, ia bosteun urteren buruan izkuntza bat bera izan ote diteken, eta gogor ekiten dio etsaiari. Mayans'en iritziz, izkuntzak ibaien antzera jo ditezke: izena aspaldikoa dute (esaterako Leizaŕan, Oria, Urumea), baiño dijoan ura ez da ordukoa; aldiero beria da, beritzen ari da. Alaxen izkuntzak ere.—Oker ari da Mayans, dio Laŕamendik. Nik izkuntza, gizonaren antzera jotzen det: ba du gorputza, ba du anima; gorputza itzak osatzen dute; anima, itz oien alkarbidea, joskera da. Ta au berdiňa izan ezkero, izkuntza berdiňa da, josi-gaiak lengoak ez izanik ere. Ario ortara, Mayans jauna, bosteun urteko gizon bat ez diteke izan berbera. Noe gizagajoa bosteun urtetan, iru seme izan zituthean, ez al zan Lamek'en semea? ta gero seireun urtetan, ugalde aundia gertatu zanean, beste bat al zan? Ta Noek seireun urtetan itzegin zun izkuntza e-tzan beaz umetandikoa bera?

Euskera ainbeste urteren buruan argalduko zala; bai, baño ez al du iraun lengo berean? ez al du lengo egitea, lengo tajua, ez al ditu lengo ezur-giltzak, ez al du lengo arnasa, lengo anima? aragitan berdiň ez ba dago ere?

Euskera, eguzkiaren jaiotaldeko izkuntzaki bat, adaki bat dala esan zigun Mayans'ek, Tomasinoren-gandik ikasita. Euskera naiz beste edozein izkuntza, astiroki itzegin ezkero, hebreo dakin batek ulertu edo aditu omen dezake *¿Bai?*, dio Lafamendik. Atoztea bada olako jakintsuok, nik itzegingo ditzuet, eta geldi geldi itzegiň ez ezik, baita idatzirik utzi ere, ta ikus zer aditzen dezuten. Eta gure Laŕamendi euskeraz asten da bero bero, erderazko itzauŕean. Beraren itzak aterako dizkizuet. Orain ontzai ematen ez ditugun esaera batzuk ba ditu, baiño, aiek bereix, gaurko

euskerarik obeenari ere ez dio zor aundirik. Mingari da, Laŕamendik euskeraz idatzirik geio ez utzi izatea. Mendiburuk eta baiño obeto egingo zula iduri zait. Oraingo euskaldunok ere askok alde-aldera egiten degu, itzak Laŕamendik bezain aukeratu bage. Itz bakoitzak bere adieraztea ba du, ta itzegitekoan besterengandik ondo bereizten ez ba degu, bakoizten ez ba degu, euskera motela aterako degu. Entzun bada Laŕamendiren itzak :

### Euskaldunai Osasuna

«Uste deu gure Urlia (aditzen nazu nori nagokan, begira ez ni salatu), badakiela dana ta datekean guzia, onako latiñezko zerenda batzuk irabiatu dituelako. (Mayans'ekin ari da CXII). Aiñ aro dabil, ain da bere buru, ain berez ta bere buruz betea ta uanditua dago, non dirudien, iñor ere ez daukala ezertan, naiz dala aundi, naiz txiki. Euskara da, gaitzik egin ba lio bezela, aren erabea, eta saietsetik, euskaldunak ere bai. Itsuen gisa jo ezak emen, jo ezak or, bere ustez zeatzen, zatitzen, banatzen deu gure hizkuntza eder, guri, gozoa. Iñaŕusi bear genduke guziok hizjario, erausle, motel au, ta onen lagun irurazaia Ondo ba legokit, nik astinduko nuke, nik beeratuko nioke bere andiustea ta bere gal dor kizkur luzea. Niri eztagokidanean (ez baitagokit), beste euskaldunen batek itxeki bear lioke sail oni, iñon diraden etsai hitzontziak isiltzeko. Baiña ez bide du euskera gaixoak, are bere etxapean (bere etxapean ere) ez seme, ez adiskide, biotz onez nai dionik : ta argatikan daude guziak ain geldi, ain ixil, eskuak tolesturik, naiz beztu ta itxuskitu dezatela, naiz darabiltela oñen azpian.

Badarauskio bada gure sandiari, ezen, eguzkiaren

jaiotaldean diraden hizkerak dakitzan batek, eñaz adituko duela euskeraz; ta gezurtxo batekin ori siñisterazo nai izan digu. Uz-tak, ařen, onela nagokian. Len ama-kia egin diguk gure hizkuntza, ta orain alabakia, bein txuri ta gero beltx. Noiz utziko dek buru-koloka fařagarí ori? Edo bata esan bear dek edo bestea : eta esanari el akio (eldu iok), zabuan ibili bage. Ona non ditu(k)an euskarazko hitzak naroro. Nai ba dek oa, ta eguzkia sortzen dan aldetik erakark nai de(k)ana. Esaiok, begira ditzala irekin batean naiz aurkez, naiz atzez, goitik, beetik, zearka edo zuzenka; eztek berdiñ idoroko (arkituko) bere eñiko hitzen antza deuanik, ta are gutxiago igeñiko, itsuka ba da ere, zer esan nai deuan. Eztanda ba dagik ere, gure euskera edeña, lenbiziko hizkuntzetatik dek, arako Jainkoak maneatu ta ixuri zituen aietatik, ez beste hizkundeen naspilatik sortua. Euskera dek Espaňian lenengo sartu zana, eta aren bazter guzietan (ala uste du Laŕamendik) era batean eta luzaro txit hitzegiten zana. Zartu dek, atsotu dek (eztek hitz au erdaraz esango); ainbeste urteren eñeán atsotu bear; baña itxok, oraindikan bizkoña zeagok, gaztetzera zeak, ba zeakik bere burua txukunkiro edertzen, galantzen, apaintzen. Ezteza(k)ala beraz uste, hire esan mesanakin hire lotsageriakin ikaratu ta txokoratuko de(k)ala euskera.

Utzi diozagun Mayans'i jakiundeko maian janari onik isinten eztigunari ezpada lapiko ustel bat, arbiz, azaz, txongoz, birikakiz, hitz batean zadura-baduraz betea». Oneraño Laŕamendik.

Bai, euskera bizkor dago, gaztetzen ari da, betiko gaztetasunaren eroa berekin dauka. Gizona bein oso eldu ezkero, ez da geiago azitzen; urte batzuetan bere batean dago, ta gero beeraka asten da, xurtu ta

zalkortu ta il arte. Ez ordea izkuntzak, ez ta ere euskera. Ta bizitza, nola-ala bizitza, ez da aski, beretik bizitza ta azitza baiño. Euskerak berekin du azigarria, ernetzeko indarra, ez du ingurukoak bezela bestetara jo bear bizitzeko. Au ez da La Ramendiren aoberokeria, ez ta nik asmatua ere. Euskeraren ernedindar ori ikus nola adierazten digun gaurko García de Diego'k: Eziñ uka diteke—zion Azkue jaunari erdel-Akademian erantzutean—ezin uka diteke, Europaren orain diran izkuntzen artean oinbeste goraberetan edo aldartetan, bizirik irauteko, bere izaera bereziak, bere arotz-antza ořek asko lagundi diola euskerari; baiño ori ez da aski, euskerak bere barnean daukan biziindarra, erne-indarra ez ba lu. Euskera, besterik ez bezain ernazua da: izkuntza bizien artean bizienetakoa. Gezuá dirudi, aspaldiko gauzetara ain idukia ta itsatsia dan izkuntza au, inguruau dauzkanak baiño berizalego ta erne-garigo izatea. Inguruko erromantizkuntza antzu oiek, astiroki ta bildurez aberasten dira, latiñ amak utzi dien ondarearekin: euskerak ordea, berak borobiltzen ditu besteren bearik bage, nondinai artutako gaiak, berak oratzen ditu, Azkue jaunak ain egoki dionez. Entzun erderaz beraren itzak: «...es innegable que su exotismo formal entre las (lenguas) europeas actuales, le ha creado una situación de privilegio para subsistir a través de tantos siglos y vicisitudes, supervivencia que no se explicaría por las solas causas históricas sin atender a sus condiciones biológicas... La independencia formal y la falta de conexión con otras lenguas, ha contribuido, no sólo a mantenerlo, sino a desarrollar el carácter, para mí más saliente, de su vitalidad. El vascuence es, en este sentido, una lengua excepcionalmente productiva, una lengua viva por excelencia. Por una

singular paradoja, este idioma, que tanto arraigo muestra a la tradición multiselular, es entre los que le rodean el que con más libertad innova y produce nuevos elementos. Rodeado de hablas románicas que tan pobre vitalidad germinativa muestran (ernetzeko indaŕa), y que tan lenta y tímidamente crecen con la derivación de la herencia latina, el vascuence tiene el don singular de multiplicar libremente sus voces, de maznar, como con gráfica expresión dice el señor Azkue, cuantos elementos están a su alcance» (39-40).

Itzok ez dira Laŕamendirenak, baiño bereun urtez aurétki oinbeste itxura bage esanik utzi zigun orixe bera.

Laŕamendiren itzaurea ez det osotara arótua, atximurkatu besterik ez det egin, eta ez bearik ere, ez baitzaituet aspertu nai.

Euskeria, Laŕamendik esan bezain aberatsa al da? Bai jaunak, berez ala da, *per se*, Laŕamendik dion bezela: oraingoz edo bein beingoz (*per accidens*) uŕia balitz ere. «Lenguas apocadas» izkuntza aulak omen dira gure inguruetaikoak gurearen aldean. García de Diegok esan du ori, Laŕamendik ez eze. Zer aberastasun du euskerak? Ez diru txearren aberastasuna, ondasunena baiño. Zer palta du gaur euskerak? Diru-ale ori, eskuetako alda-dirua, edo erdal-itz mordoiaren bidez esaten deguna: *ganbioak*. Eŕozko edo ondozko aberastasunak ba ditu ugari euskerak. Ganbio oietxen beaŕean arkitzen gera euskaldunok, biŕa ibili ez geralako. Noiznai'ko burutapenak adierazteko indaŕa ba du euskerak, baiño gaur-gaurko artu-emanetan, gaurko asmaketa, buru-zirikeri ta gogapenak adierazteko *ganbio* batzuen beaŕean arkitzen da. Eskuetako alda-diru ori bear du, ta ori bein beingo gauza da; ori ez da berez aberastasuna.

Erabili dezagun bada, oitu dezagun gure euskera  
edozer gaitan, nolanaiko buruaren artu-emanetan, eta  
Laŕamendiren esana egi aterako da.

Sales'ko Prantzisko santuak esan oi zun, ordu  
erditik aruntzagoko itzaldiak biotzari ez baiño egon-  
ariari edo ipur-mamiari eragiten ziola. Ori Jaungoiko-  
aren itza entzutean gertatzen ba da, areago nerea  
bezelako itzaldietan.

Oinbesterekin, jaunak eta andreak, nere esan-  
beára esanik nago.

ORMAETXEA'TAR NIKOLA.

---

## EL SUFijo-GARI

Tratando de este sufijo, dice nuestro señor Presidente en su Morfología, página 98 : A). En su sentido *obvio* es sufijo adjetival y designa lo que el latino *bilis* B) muchos vascos, especialmente en AN, B, G le dan el sentido de derivativo nominal que compete a *ailu* (*gailu*, *kailu*). Este *ailu* es *activo* y *pasivo* el sufijo-gari, sólo que en los citados dialectos muchos lo hacen *pasivo* y *activo*.

En la página 155, agrega : «Añádase que su ámbito semántico es, como el ámbito de la sombra, no bien determinado; pues vocablos hay en que significa «digno de ser...» como *ikusgari*, digno de ser visto, y otros en que vale por «productor de...», como *galgari*, perjudicial, productor de pérdida».

En cambio, el P. Arrigarai, en su Gramática del Euskera, página 344, hablando de este sufijo, dice : «La acepción más general y casi única en los buenos autores es como agente causador. Únese a los temas verbales representados a veces por verdaderos sustantivos : *zoragarí*, *izugarí*, *galgarí*. Algunos le suelen dar como regla general la acepción de «digno de apto», con significación *pasiva* parecida a los adjetivos españoles *en-ble*; pero como dice muy bien un autor «desviándolo de su significación primitiva».

¿Cuál de los dos tiene razón? Puede ser que la tengan ambos, aunque, al parecer, sostienen opiniones contrarias. «Maitagarí» y «amable» parece que

tienen igual valor semántico; pero ¿por qué nos es amable una persona sino porque nos induce, mueve o provoca a su amor? Es, pues, a un mismo tiempo causa y objeto del amor que provoca, y por lo mismo el sufijo-garí en este y otros muchos casos es activo y pasivo a la vez : activo, en cuanto expresa la causa del sentimiento que en nosotros produce : pasivo en cuanto indica el objeto del sentimiento o afecto producido.

El sufijo-garí—como lo nota acertadamente el señor Azkue—se agrega a temas nominales y verbales; forma derivados nominales y adjetivales o cuando menos, equivalentes a adjetivos de otras lenguas. Veamos si su ámbito semántico, no bien determinado, puede de algún modo precisarse.

A mi juicio, la significación genérica del sufijo -garí es la de causa, eficiente o material, incluyendo en la eficiente, no sólo la eficiente principal, sino también la instrumental o medial.

Voces en que con tema nominal indica causa eficiente. Ahalkagarí o ahalkegarí (vergonzoso), alagarí (causa de queja o riña), argagarí (lo que ilumina), arikagarí (fastidioso), asaregarí (lo que excita la cólera), beilagarí (conmovedor), berogarí (estímulo, estimulante), biguingarí o bigungaři (suavizador), bihotz-beragarí (estimulante), bihotz-berogarí (recomfortante), bihozgarí (lo que anima), bozgarí o pozkarí (consolador), dirdiragari (brillante), ergarí (B, arc.) discordante, causa de riña), erigaři (malsano), erhogaři (enloquecedor), galtzaigarí (perjudicial), izigarí o izugaři (espantoso), hezagari (lo que humedece), irakaragarí (tremendo), kaltegarí (dañoso), kiřikagarí (apetitoso), laidogarí, lotsagarí (afrentoso), lagungarí (estímulo, auxilio), lehiagarí (lo que apasiona), lilur-

agarí (deslumbrante), loigarí (suciedad?), mingarí (mortificante), nakhaizgarí (repugnante), nardagarí (id.), naŕitagari (excitante, irritante), nekagarí o nekegarí (fastidioso, penoso), oiñazagarí u oñazgarí (atormentador), ordigarí (embriagador), pizkorgarí (fortificante), soorgarí (calmante), unhagarí (fastidioso), huŕangarí (apetitoso), zalegarí (excitante), zen-tzagarí (lo que hace a uno cuerdo), zoragarí (encantador), zuhurgaři (causa de economía).

### Con tema verbal

Akhigarí (fatigoso), altxagarí (levadura), aŕailagarí (desgarrador), aŕigarí (estupendo), asaldagarí (alarmante), asegarí (productivo?), elúra, asegarí (saciador?), hastandagarí (repugnante), atzengarí (lo que hace olvidar), barauskarí (desayuno), begi-betegarí (hermoso, lo que llena el ojo), biotz-uŕagaři (desgarrador), buruauskarí (-garí) (lo que da quebraderos de cabeza), emagarí (calmante), eragozkari (-garí) (obstáculo), erdeiňagarí (enojoso), erdiragarí (desgarrador), ernagarí (incitante), eroakarí (atractivo), er-txagarí (comprimente), esgarí, etsigarí (desesperante), gaitzigarí (ofensivo), galgarí (perjudicial), gogaikaři (fastidioso), ihaŕosgarí (conmovedor), ixilgarí (incontestable), itokarí (ahogo) itxusgarí (lo que afea), lehergarí (aplastante), okhastagarí (nauseabundo), ondagarí (destructivo), piztugaři (confortante), txipil-garí (abrasador).

Los ejemplos que acabo de citar ponen fuera de toda duda que el sufijo-garí denota causa eficiente. Lo que sucede es que muchas veces lo que es causa es a la vez objeto de lo causado. En tales casos, el sufijo-garí toma cierto carácter pasivo y admite per-

fectamente la equivalencia de los adjetivos latinos en-bilis, e.

«Atsegингарí» es causa y objeto de placer o agrado (agradable); beldurgaři o bildurgaři, causa y objeto de temor (temible); gofotogarí, causa y objeto de odio (odiabile); negargarí, causa y objeto de llanto (lamentable).

Abundan los ejemplos de esta clase, sobre todo con tema nominal : damugaři, dolugaři (lamentable), bařegarí (risible o ridículo), efukarí (digno de compasión), iguingarí (detestable); izugarí (terrible), iřigarí (digno de burla), lazgarí y lazkagaři (terrible), nagaři (abominable), naskagaři (*íd.*), naigaři (estimable), uríkalgarí, uríkaři, erúkaři (miserable), kupigarí (*íd.*), maitagaři, onirizgarí (amable), tiřiagarí (deleitable), arbuiagarí (despreciable).

Por cierta analogía se ha extendido el empleo de este sufijo a casos en que existía una causa motiva, aunque en rigor no lo fuera eficiente de lo significado por el tema. Esto ha ocurrido principalmente con temas verbales: aipagarí (digno de mención), autagarí (elegible), barkhagaři (perdonable), begiragarí (digno de mirarse), debekagaři (digno de prohibirse), deithagarí (digno de memoria), deithoragarí (deplorable), egingarí (factible), ekusgarí, ikusgarí (digno de verse), eramangarí (tolerable), erantzungaři (reprendible), eskaingarí (digno de ofrecerse), gaitzesgarí (despreciable), gogoangaři, gogoragarí (memorable), gomuntagarí, gomutagarí (*íd.*), gordegarí (digno de guardarse), goiesgarí, goresgarí (laudable), jařaigarí (imitable), jasangaři (soportable), igarokarí (tolerable), miragarí, miresgarí (admirable), nabasigarí (notable), oroikaři, oroigarí (memorable), onesgarí (aceptable, apreciable), ohoragarí (honorable), opagarí

(deseable), *sinhesgarí* (creíble), *uríkhalgarí* (miserable), *zalegarí* (apreciable?). Con tema nominal: *Agurgarí*, *gurgarí* (venerable), *baiagarí* (vituperable), *biragarí* (execrable), *ohargarí* (notable), *nagagarí*, *nardagarí*, *naskagarí* (abominable), *madarikagarí* (digno de maldición).

Otras veces, -garí expresa causa material: *altxagarí* (levadura), *azpigarí* (lo que se emplea para hacer la cama del ganado), *aldagarí* (mudas), *balakugaři* (propina), *betagarí* (trozos de leña que se echan en un hueco para hacer el relleno), *bizigarí* (víveres), *eřegarí*, *sugarí* (combustible), *gogorgarí* (contrafuerte), *gozagarí* (condimento), *gazigarí* (aperitivo), *geigaři* (suplemento), *irassgarí* (remiendo), *ongarí* (condimento y abono), *ornigarí* (parte alícuota), *sasgarí*, *saskaři* (restos para estiércol), *ungaři* (condimento), *urtheasgarí* (aguinaldo), *usaingarí* (perfume).

Finalmente, el sufijo-garí expresa no pocas veces instrumento o medio : *itzungarí* (apagador de luces), *itxusgarí* (arco en que se recoge el hilo de la madeja), *izugarí* (espantajo de pájaros), *estugarí*, *lokaři* (atadura) *naskarí* (cucharón, lo que sirve para revolver), *orakaři* (mango), *xaunkarí* o *xaukarí* (escobón para limpiar el horno), *zapagarí* (lo que sirve para aplastar), *azkargarí* (remedio), *begiragaři* (preservativo), *berezgaři* (distinto, distintivo), *berogarí* (abrigo), *baragarí*, *eragozkarí* (obstáculo), *edergarí* (aderezo), *erabilkarí* (recursos para mantenerse), *ezagungaři*, *ezaugarí*, *igargaři* (señal, medio para conocer), *gomutagaři* (recordatorio), *jausgarí*, *jausigarí* (tropiezo), *indargarí*, *indarbide* (remedio), *kitagarí* o *kitugarí* (sufragio), *osagarí*, *osakaři* (remedio), *oroikaři* (monumento), *oroipengaři* (recuerdo).

# EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAR

---

Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1929'ko Ilbel-tza-ren 24'an.

Batzañaldian euskaltzain jaun abek bildu ziran : Azkue-maipuru, Urkijo, Landeretxe, Altube, Intza, Lakonbe ta ordezko urgazleak Oleaga ta Ormaetxea. Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak lan bat irakuñi digu. Lan ontarako bide izan zaio Añibañok utzitako esku-idazki bat ta onentxen izena auxe da : *Voces vascongadas diferenciales de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, con la distinción que les da cada provincia.*

II.—Diruzai jaunak, gure dirutzaren gora-berak agertu dizkigu. Ikusten danez, eman-artuetan zerbait irabazi degu, gure beařetan urí-xamar ibilita. Irabazte auxe ongi datorkigu, Iztegi beríak dakarzkien eralki-etalako.

III.—Euskaltzaindiak, Daranatz Bayona'ko kano-nigo jaunaren liburu bat bereganatzea erabaki du. Liburu au, auxe da : *Recherches sur la ville et sur l'Eglise de Bayonne.*

IV.—Euskaltzain jaunak jardun dute Iztegiko lan- etan, len utzitako utsunak betetzen, eta *ab intestato* arte iritxi dira.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

**Bilbo 'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1929'ko Ilbeltzaren 25'an.**

Auréko agirian aipatzen diran euskaltzaiñak bildu dira Azkue maipuru dutela. Otoitzez asi da.

I.—Batzáraldi guzia Iztegi-lanetan igaro zaigu ta azterbideak egiñik *Ab origenes* arte iritxi gera.

Lan gogor au auréra eramateko, Altube jaunaren otupenez, abek erabaki dira: egindako lanetatik xérenda edo kopia euskaltzaiñai eman bear zaie. Abek xérenda ori beren etxean aztertu lezateke ta zeritzazkien oarpenak edo itz beñiak xérenda-inguru ipiñi. Batzañaldira ez datozen euskaltzain jaunak, xérenda ori biali bezate, edo oarpenez edo oarpenik gabe. Oarpenik gabe xérenda baletor, antxe dagon itza ontzat daukatela aderazten dute. Batzañaldira datozenak, ezeren oarpenik edo itz-beñirik ez balekarte, auxe ere xérendan dagon itzaren oniritxitzat emango da. Oñela beaz: oarpenik edo itz-beñirik ez dakarten itzez, ez da auturik iñolaz joko ta ontzat emango dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi au.

---

**Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1929'ko Otsailaren 27'an.**

Motriko, sin incorporar el pronombre *i*; de *darabilt*, *darabilat* y *darabilnàt* y así las demás. Suenan también así sus respectivas familiares guipuzkoanas *zékatenàt*, *zékiagù* y *zekinagù*, *zegòk* y *zegòn*, *zerabilèt* y *zerabilnàt*. Lo mismo sucede en las flexiones del auxiliar transitivo. Son monótonas *ekarí dot*, *dau* y *dogu* y dítonas sus familiares *ekarí ðoàt* y *ðonàt*, *ðoadàz* y *ðonadàz*, *ðoagù* y *ðonagù*. Se ha dicho arriba que esto sucede en las flexiones familiares en que interviene el pronombre *i* (1) pues las del verbo *izan*, como se expuso oportunamente, no se forman de esta manera, sino substituyendo sus flexiones por las del auxiliar transitivo. Familiares de *etorí naiz* no son *naiaizak* o *ñaizak* y *naiaizan* o *ñaizan*, como son *naiaigòk* o *ñaigòk* y *naiaigòn* o *ñaigòn* las familiares de *niago*. Como familiares de *etorí naiz* decimos *etorí nok* o *nauk* y *non* o *naun*; de *etorí da*, *etorí dok* y *don*; de *agertu gara*, *agertu gozak* o *gaituk* y *gozan* o *gaituri*. Pues bien, esas flexiones familiares no son dítonas como las arriba expuestas, pues no pronunciamos *etorí nok* como *naiaigòk*, sino *etorí nok* monófonamente, no *etorí gozak* o *gaituk* como *gaiatozàk* y *gaiabilzàk*, sino *etorí gozak* y *gaituk*.

#### RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE.

(Continuará)

---

(1) Al publicar, como apéndice del tratado de Morfolología, la conjugación guipuzkoana, se verá que el elemento *z* familiar de este dialecto no es más que una metamorfosis del elemento bizkaino.

## Orainarte ongi aztertu gabeko bi epentliches

MuÑA —I. Lan au zerengaitik euskeraz. Izpefi batzuk.—II. Euskeraren bilbakuntza (evolución).—III. Lenengo egiabidea (teoría). *Dakaŕe ta dakarte... e. a. ¿T au zer da?*—IV. *Zuek dakizue. ¿Zerengatik eztute Axular, Leizarraǵa ta Oihenartek dakizute esaten?*—V. Bizkaieraz *dakaŕena ta darabilena* nola ezagutu noiz diren «lo que trae, lo que mueve», ta noiz «lo que traen, lo que mueven».—VI. Bigaŕen egiabidea. Bizkaieraz beinola *noeala ta eroeala*, Oihenartek *nohela ta neroela*.—VII. Egungo eguneko fosil bat.—VIII. Oihenarten adizki zenbait.—IX. Gure egunetako idazle batzuen idatzankera.

I. Lantxo au, beste batzaŕen batean agertu bear banu, erderaz, Spainiako erderaz, egingo nuke. Lapurdiko irixko polit onetan eztut, ordea, erdera oŕezaz agertu nai izan.

Euskeraz onelako eginenak argi ta garbi asi ta amaitzea lan zaila, neketsua ta oso gaitza dugu, nik beintzat, Gure mintzaera zár maite oni, ikastetxētan inoiz sartu eztelako, gogor egiten zaio *epéntesis* ta *teoría* ta *evolución* ta *conjuntivos* ta emen aipatu bear ditudan beste buruera edo idea batzuk erakustea. Epentesis adiarazteko *sarkizun* eztakit egokia oteden. Teoria-ren ordez bereala entzungo duzue lan au egiten diardudala bururatu zaidan itz beríto bat. Silvain Pouvreauen lan batean (enaiz oroitzen zeinetan zen) *gurentasun* noizbait irakurí nuen erderazko *desarrollo* (développement) eta *evolución* adiarazteko. Itz au bizkaieraz santidad bezalatsu da. *Aste gurena* semana santa, *eguen guren* jueves santo ta onelakoxe beste esakeria batzuk auŕez ta eŕaz darabilzkite

euskalki onetan. Beste itz bat, zuberotaren *bilbe*, oin egokiagotzat dadukat oretarako. *Bilbakuntza*, desarollo ta evolución adiarazteko, *gerentasun* baino egokiago dela dirudi. *Conjuntivo* euskeraz, beste itz artarakoago bat sortu eztadin bitartean, *alkarki* esan edo diteke.

Enaiz ni neronez izperíketan (neologismoak egiten) gogo beroz ari izaten. Bart euskaltzain beñiak erakutsi zigunez, lan ona luke gure euskerak izperíketa au; eta noiztanka ta ertia dudanean nerau ere arazo latz onetan enaiz aleginez atzerena izango.

II. Aspaldion eskuartean beste bat edo biren artean lan luze ta gogaikari au darabilt: *La Evolución de la lengua vasca*. Len aipaturiko izpería aintzat artzekoa balitz, *euskeraren bilbakuntza* eman lezaio euskerazko izentzat, Bizkai ta Gipuzkoan *aldakuntza* ulerterezago izanañen. Bi ataletan egin nai nuke lan au. Lenengo atala, Bizkaiko euskeraren aldakuntza, nolabait amaitua, bukatua, urhendua dut. Gipuzkerazkoa ikasteko gairik eztugu, liburu zârik. Bigaeren atalean Bidasoatik ononzko euskalkien bilbakuntza azaltzekotan Leizarraga ta Oihenart eta Axularén idazkiak beñiren beñi irakurí ditut.

Uñengo batzar bat edo batzuetan oñezazko zerbaite erakutsi nai nuke. Egungo onetan agertzeko eztut astirik izan. Iru idazle (izkribatzaile) orien adizkiak (flexiones verbales) aztertzen ari naizela bi egiabide edo teoría beñi garmuñ-artearen egun auetan sortu zaizkit. Egiatzkoak dirudite. ¿Egiatzkoak otedira? Lantxo onen leñoak egun entzun eta biar edo etzi irakurí ditzazuenean, zuek eñaz izango duzue galde labur ofi erantzutea.

III. Ona emen lenengo egiabidea (teoría). Bizkierazko *dakañe*, *dakie*, *dinoe*, *dantzue*, *dirudie...*

eta abar beste euskalki geten geleretan, e azkenik oten aintzatik f dutela, esan oi dira : *dakarte, dakite, dloie, dantzufe, dirudite*, eta berdin *dakuse ta dakuste, daroe ta daramate ta besferen bat edo beste*. ¡Zer oleda f au? Ene ustez artizki edo *elemento epentético* bat baizik ezta. Azkentzat *vocal* bat dioten adizkiak (esaterako, *daki, dago, noizbait doa ere bai, dirudi, dino* edo *dio* eta aien antzeko beste batzuk) bizkaieraz a bear izaten duen, *elemento conjuntívoren* bat gaineratzen zaienean, beste euskalkiefan e. *Dakiala* bizkaieraz, *dakiena* beste euskalkiefan; *dagoana* ta *dagoena*, *dirudiala* ta *dirudiela*, *dinoala* ta *dióela*. Beraz beste euskalkietako e oniek bi zentzun (acepción) ditu. Batzuetan *vocal* epentética da, beste batzuetan irugaren agente plural. Eta naste au argi ta garbi yariko sartu zaie adizki (flexiones verbales) oriei len aipatu dudan f. *Dakiena* lo que sabe él ta *dakifena* lo que saben ellos; *dirudien* lo que parece ta *dirudifena* lo que parecen ellos.

IV. Orain sei zazpietan bat urte euskeraz zu etzan orain bezala lagun bakar balentzat esaten, askorentzat baizik. Erderazko vos gure izkeran sartu zenean, bear bearekoa zan vosotros beste nolabait adiaraztea eta orefarako gaineratu zitzalon e ori, bai adiztean (verboan) eta bai besetako ere: zu vos ta zuek (Bizkaiko alde batzuetan zuok) vosotros, *dakizu vos* sabéis ta *dakizue* vosotros lo sabéis. Leizarraga, Oihenart eta Axulařek, gure egunetan Gipuzkoako alde batzuetan oñ denez, etzioten *dakizue* ori f artizkitzat ezarten. Bein ere, nik dakkidala beiniazaf, ezta beren idazkietan *dakizue* irakurtzen. Zeren EZTAKIZUE eguna eta ez orena dio Axulařek (Oero 56-6). Segura zaitezte DAKIZUEN bezala dio Leizarragak (Maf. 27-65), zuek adoratzentz bazu ezta kizuenena : Leizarragak au

ere (Joan. 4-22). *¿Zerengatik ezotezutene idazle zâr auek adizki orientan t aintzat artu?* Obeki esateko *¿zerengatik ezotezutene orduko lapurtar, papar ta zuberotarak, eta egungoak zer dela ta eztute t oñelako adizkietan erabiltzen?* Bear etzelako ta eztelako. Len aipatu dudan *e artizkia (dagoena, dakiena, dabilena eta beste adizki askoren e ori)* aditzaren muñari ezarri oñ diogu (al núcleo verbal), bein ere ez beste gairi, beste elementu bat ez bat. *Dakigu ointzat artuz eztu inork esaten dakiguena, dakiguela, dakiguelako, beti dakiguna, dakigula ta dakigulako.* *Zuk dakizu* oñ delarik *zuk dakizula* esan oñ dugu beti, ipoiz ere ez *zuk dakizuela*. *E* epentética muñaren (nucleoaren) geigarria da beti. *Dakiena* esaten dugunean, t bear bearlekoa da adizki ori singular noiz den ta plural noiz yakiteko.

V. Onezaz gainera Bizkaiko euskalkiak beste zenbaitek bezalaxe *e* bear izaten du artizkitzat, aditzaren muñak azkengaitzat r naij / dituenean. *Dakar ta darabil-tik eztugu esaten dakaiana ta darabilana, dagoana ta dakiana* bezala. *¿Nola ezagutu daituke ordea dakaíena ta darabilena noiz diran singular «lo que trae, lo que mueve», ta noiz plural «lo que traen, lo que mueven», nola?* Beste euskalkien antzera t Bizkaikoan bagendu, erazago ezagutu genezazke singular ta plural auek. Azentuz ezagutzen ditugu; *lo que trae dakaíena* (izki guziak tonu berdinian), *lo que traen dakaíenà* (azkeneko izkia bêrago); *berak dakielà* *lo que él sabe* (tonu batean), *eta lo que ellos saben euràk dakielà* (bi tonutan, azken izkia bêratuz).

VI. Goazten orain bigaeren egiabidetxoa azaltzera. Aditzen (verboen) artean bi ditugu beren muñaren azkenizat a dutenak: *yoan* ta *Bizkaiko eroan* (beste

euskalkietan *eraman*). *Oa ta roa edo rama* dira beren muñak (núcleos): *ni oraintxe* NOA ta *ni orek oraintxe* NAROA edo NARAMA. A oni alkarki bat gaineratu bear zaionean, bizkaieraz, epentlichis-gisa, orain bérén bat urte beste a bat gaineratzen zitzaison. Orain galdua da sarkizun au. Bidasoatik ononzko euskalkietan e izan zañ aldi batez *noa ta narama* ta berok bezalako beste adizki batzuk bear zuten artizki edo infijotxoa. Bizkaieraz *alaba, aŕeba, neba, gona* ta auen antzeko a-dun itzetan, mugaitz edo artikuluaren auréan, a ori e itzultzen da: *alabea, aŕebea, nebea, gonea*. *Noa ta naroa-ri* beste a bat gaineralzen zitzaiénean muñaren a (nucleoarena) e itzultzen zuten gure aurétko idazleak. Micoleta zeritzaion Bilboko seme apaiz euskalariak orain bérén bat urte *noa, oa, doa* idazten zuen eta *noeala, oeala* ta *daroeala*. Bere liburutxoaren 23 gañen ofialdean irakuritzen dugu *aditu yoeala gizona* que solía atender el hombre. Baŕutia zeritzaion orduko beste idazle batenganikakoa da esakeraño au: *kazara doeán orduan* (Euskalzale. J. 413-41). Micoletak berak dio: *esan EROEALA que solía decir* (26-37). *Ostia gora DOEANEAN* cuando la hostia va arriba dio Capanagak (131-13).

VII. Egungo egunean e ori i itzuli zaigu ta gainera *fosil* dugu. Fosiltasun oni esker, beti ageri da i au Bizkaiko alde batzuetan, naiz adizki oriek bakaŕik diranean, naiz *na ta la* dituen aldi orotan. *Noia, oia, doia ta noiala, oianeko ta doianeana* esan oi dugu nire yaioterían. Beste batzuetan ere entzuten ditugu.

VIII. Micoletak, Capanagak eta Baŕutiak bezala Oihenartek ere *noa, oa, doa* oso osorik esaten zituen. Alkarkiren bat gaineratzean e artizkiak a ori erauzten zuen. Ona bere 580-gañen atsotitza: *ergela da gordatzena... es tonto el que va a guardar*. Askozaz

politagoa da 675 gaéna. *Urunera DOHENA ezkontzera,edo da enganatu edo DOHA enganatzera* quien va lejos a casarse o se ha engañado o va a engañar. Oihenartek frantzesez onela eman zuen atsotitz eder au : «qui loing se va marier, ou il est trompé ou il va tromper». 166-gáñean au dio : EZTOELA *latsara gatzez duena oinzolara* no vaya a lavar el que tiene la planta del pie hecha de sal = n'aille, dio berak, n'aille a laver la lessive qui a les pieds faits de sel». Onelako beste adizki batzuk ere baditu Oihenartek. Bat ere eztute orelakorik ez Leizarragak ez Axularék. *Saulen ihesi ZIHOALA* dio Axularék (GERO I. 90-1). Oihenartek *zihuela* esango zuen. *Deliberamendu handiagoarekin ZIHOANEAN* dio Sarako érétor ospe-tsuak (GERO I. 115-5), ez ordea *zihoeñean* Oihenartek bezala. Leizarragarenak dira beste bi gertari edo exenplutxo auek. Lenengoa : *eta hura ZIHOALA hedatzen zituzten* (Luc. 19-36). Bigáñea : *senda liezon bere semea, ezen hiltzera ZIOAN* (Joan. 4-47).

IX. Lan au ez luzeagotzeaén, aipatu baizik eztut egingo nonnaiko ta noiznaiko euskeraren adizki askok eta gure egunetako idazle bat edo bestek darabilzkitenak duten alkarr yotzea, alkarr austea. Leizarraga, Oihenart eta Axularék, orduko ta oraingo ériak bezala, *gizon batek dakiena, egia eztirudiela, an dagoela, aitak nai zuen, batek egin duelako...* esan ta idazten zituzten. Gure egun auetako idazleren batzuk ordea, *e artizki ori aintzat artu nai eztutelako, dakina, ez dirudila, an dagola* (au ériari ere nonbait entzufen zaio), *nai zun, egin dulako...* idatzi oi dute. *I ta u* vocalak uréngoa *a* éri batzuetan berendu egiten dute, *i* ta *u* biurtu : *geiago-ren ordez geiigo, geiyo ere bai, Frantziin, Donostiin, eskutan; esan nuen-en ordez esan nuun, ekaři zuela esan bearéan ekaři zuula.*

*Nuun ta zuula ta duulako laburtuak dira or goiko  
nun ta zula ta dulako.*

Orain ogeita amar urte, geixeago noski, Bizkaiko euskalari bat, deklinacioneko *e* artizkia, bear etzen gai bat zela uste zuelarik, oso osorik erauzi ta kentzen asi zan; eta *kokotzean*, *ezpaineretik*, *suduréko...* eta auen antzeko beste itz asko onela erabili ta idazten zituen: *okotzan*, *ezpandik*, *surko...* eta abar. (Bizkaieraz beste euskalkietako *kokotz*, *ezpain* ta *sudur okotz*, *ezpan* ta *sur* dira).

Ongi begiratuezkerro andia da eriari gerta zaiona. Lenagoko gizaldietan eriaren aurka (kontra) etzan inor goratzen; eta—gezurá dirudien—orduan Eŕege ta Emperadoreak zuten-goitasuna ta soberania Eŕiak duen egun auetan eriaren aurka, batean Arana-Goiri, bestean Azkue (aldi batez beintzat), bestean besteren bat yaikitzen gera. Eŕiari bear zaion lotsa ta begiramena gorde dezaiogun.

Amaitzeko iru bat iztxo. Atzo gure artean artu gimuen euskaltzain beri Azkaindarak, orainarte egindako lanez ta irabazpidez edo merituz berarenganatu duen aulkian, geroztik ere lan ederak eta ugari egin ditzala, Bidasoatik ononzko euskalkiak gure ondorenkoak argiro ta garbiro ikasi al ditzaten.

Azkainen, 28. XI. 1930.

AZKUE, apaizak.

## AZKAINGO LANTOAREN YÁRAIPENA

---

MUNA (Sumario).—I. A ta e artizkiak *izan* aditzaren irabiamenean (conjugazionean).—II. *Izan-en* adizki batzuetan bizi diren sarkizunak (epentliches).—III *Izan en* imperativo ta subjuntivoan bizi zirenak —IV. GERO ta GEROKO GERO ren alde edo banatasuntxo bat.—V. Lapurdiko idazle zafenak aginpeneko (imperativoko) adizkietan.—VI. Axulafek *biz* adizkiari emandako zentzun bitxia.—VII. Epentliches edo sorkizun au subjuntivoan.—VIII. *Izan* aditzaren beste adizki batzuk.—IX. Bizkaierazko *gintzazan* ta *zintzazan*.—X. *Izan en* adizkiak aufertik *ba-* eta atzetik *-te* naiz *-de* dituztela.—XI. Gure egunotako idazle batzuen adizki zenbait.—XII. A ta a bizkaieraz eztira beti *ea*.

1a

I. Lengo ilean orainarte ongi aztertu bageko bi sarkizun (epentliches) deritzaion lantxo bat agertu nuen bigaen batzaileko gaitzat. Bizkaieraz *a* bezala Oihenartek bi aditzetan *e* erabili zuela erakutsi nizuen: Bizkaiko idazle zaarak *noeala* ta *neroela*, Mauleko atsotitz-biltzaile ta olerkari argitsuak *nohela* ta *neroela*. Oihenart baino lentxoagoko idazle napar zuberrotar Sauguis-ek etzuen *e* ori aintzat artu. 109-gaeren esakunean dio: *danzatu nahi eztena, eztohalā danzala* quien no quiera bailar no vaya al baile.

Gainera Oihenartek, bizkaieraz bezala, *eraman-en* ordez maiz *eroan* erabili zuen eta *ioan* adizari guk eman oi diogun zentzun «soler» noiztanka eman zion. Ona bere esakune batzuk: *seroretara zautan gogoa, ezteietara aizeak NAROA* (530-gafena), *neska hartzen ari dena saldu DOA=suele venderse* (532-gafena), *bethegiz zo'oia lehertu DOA* (511), *burla gaxtoa bere sor-lekura itzuli DOA* (565), *urhe-gakoaz athe guziak ireki DOAZ* (466). Urkijok, *Revista Internacional-en* II-677 *Los refranes vascos de Sauguis* izentzat duen lan edelean, Oihenarten atsotiz batzuk aipatuz, au dio: «*á mi me parecerá más verosímil, mientras no me aduzcan pruebas terminantes en contrario, que los mencionados*

refranes vizcainos le fueran enviados por algún colaborador»... Berdin uste dut nik ere, au gaineratuz : Oihenartek bizkaierezko adizki oriek osorik argitaratuaren, atsotitz bakoitzaren beste itzak, geien geienak beintzat, bizkai-kutsua kenduz agertu zituela. Esakune orientako itz auek eztira bizkaierezkoak: *zautan, ezteietara, ari dena, itzuli, urhe-gakoa ta ireki*. Sauguis-ek ere, bizkai-adizkirk ezafen, a artizkia (epentetikoa) euskalki onetan bezala erabili zuen. Bere efan zahafetakoak dira adizki auek : 1.<sup>a</sup> *egur dagianak* el que hace leña (152)—Oihenartek efan zahaf au, beste asko ta asko bezala, atsotizturik, onela eman zigun : *eguría dagienak* (126); 2.<sup>a</sup> *Orzaizen ediren zuian zořiak* (125); 3.<sup>a</sup> *Albiriste EZTAKIANAK hobe uste* (200); 4.<sup>a</sup> *Gaixto gaixto ninzan, berdin bizi NINZAN* (191); 5.<sup>a</sup> *Hortzik EZTUANAK, eztaři* (6); 6.<sup>a</sup> *EZTUAN oro emaile hon* (23)—Oihenartek onela atsotiztu zuen efan zahaf au : *deus EZTUENA, balu, emaile handi*; 7.<sup>a</sup> *Haurík EZTUANA᷑ ez haur abegirik* (58); Oihenartek (497) *haurík EZTUENAK ez haur mimik ere* (218); 8.<sup>a</sup> *Duijanak, azer biper* (18) el que tiene (echa, se entiende) a las berzas pimiento. Azer erderazko dativo plural da : a las berzas. Oihenartek bere 120-gaeren atsotizzean DUENAK, *azer biper* dio; 9.<sup>a</sup> *zelarik nahi EZTUANARI eman bekio basto* (gezotezuen berak basta idatzi?) (182); Oihenartek 428 gaeren atsotizzean : *zela nahi EZTUENARI eman bekio arbalda*. 10.<sup>a</sup> Sauguis'ek 154-gafenean *ogia labarazioan*, Oihenartek 341-gafenean *ogia laberatzean*. Bizkaierez *laba* da erderazko horno, bestie euskalkietan *labe*. &Nondikoa otezen Sauguisen lanak duen Bizkaiera-kutsu au?

Ni orain nagoen bezala arkitzean, euskalari geienak, garmuñ-artean erdera ta euskera dituela, Bidasoatik ononzkoak badira *eztago esan bearík* idatzi oi dute, erderazko «no hay necesidad de decirlo»; beste aldekoak direnean, *erán gabe doa*, frantzesen «ça va sans dire». Nik ere idatzi dezadan : *eztago esan beafík* edo efan gabe doa emen aipaturiko efan zahar ta atsotitzak Urkijoren lanean irakurfi ditudala.

II. Lengo ilean irakuritako lanean orain ilak diren adizki batzuk agertu nituen, bizkaierez a eta Bayona-aldeko euskalkian e sartizkitzat zutenak. A ta e auek *izan* aditzean bizi dira orain ere, azkenean a duten adizkietan : *gara, zara ta dira*. Adizki auek beinola, gure idazle zaínen egunetan, ez bakařik indicativoan orain bezala, baita imperativo ta subjuntivoan ere artzen zituzten bi epentetico oriek. Ona emen gertari

batzuk. Axulañenak dira lenen erakutsiko ditudanok : *adiskiden artean GARENEAN laso GARA* (GERO 1.<sup>a</sup> 28-3), *oraiño bideazkoak GARA eta hunela GAREIÑO iragan gaitezke aitzinat* (Ibid. 195-17), *bethi DIRA zerbaiteen eskas, hartzaren eta oraren umeak DIREN bezala* (Ibid. 300-28), *itsu ZARA, erho ZARA, nahasia ZARA...* (Ibid. 299-19) *ta hasseŕe ZARENEAN* (Ibid. 299-23). Leizarragarenak dira beste auek : *ethoŕi GARA* (Mat. II-2) *ta bateyatu izan GAREN guziok* (Rom. VI-3) eta *Jauna, on duk gu hemen GAREN* (Mat. XVII-4); *EZTIRA bortz paŕa-xoŕi bi dirutxotan saltzen* (Luc. XII-6) eta *partitu DIRENEAN* (Paradisuaz...) eta *erorten DIRENAK* (Ibid.) eta abar. Saugusek bere eŕan zaharétan eztitu *gara ta zara adizkiak* bein ere aipatzen; *dira ta diren* bai: 160-gaŕenean *Hauŕak bihi laŕi DIRA eta 63-gaŕenean zamariak ioan DIRENIAN, establia zeŕa*. Oihenartek ere *gara ta zara* ez, atsotitzetan beintzat; *dira* batean soilik, bestean alkartitzen bat (conjuntivoren bat) gaineratuz. *Bago erorira*, dio 64-gaŕen atsotitzean, *egurkari guziak laster ari DIRA eta 115-gaŕenean ditzak bi aurhide, on eta adiskide; desditzak oboro, DIREN gauzak oro.* 72-gaŕenean *batzuren gatzontzian ere haŕak sortzen DIRA eta 521-gaŕenean hassak direnean elge ezkontgeiak, nekearenak dirate ezteiak*.

III. Len esan dudanez, nonnai dantzukigu Bidasotatik aronzko euskalkietan auen antzeko adizki epenesisdunak, indicativokoak izanezkerro. Imperativoan ta subjuntivoan ere beste orduz, idazle zár auen egunetan, eŕiak erabilten zituen. ¿Orain ordea baote? *Morfología Vasca*-ren 519-gaŕen orialdean irakur diteke *izan eta ukān aditzak lenago zituzten adizki imperativo ta subjuntivokoak orain galduak dauzkatela*. «Ya las flexiones de imperativo y subjuntivo que leemos en viejos autores *naizan sea yo, aiz sé tú...*

no las oímos ya, sino que en su lugar el pueblo pone el verbo *izan* en infinitivo, como cualquier verbito derivado *zoratu, umetu, luferatu...* agrupándole con al auxiliar \**edin*. *Izan nadin* sea yo, como *umetu nadin* hágome yo niño; *izan adi, izan bedi, izan gaizan* «sé tú, sea él, seamos» como *ken adi, ken bedi* quítate, quítese, etc.»

Adizki zar aien artean maiz ageri da emen azaltzen ari geran epentlichis au. *Izan-en* imperativoa bizkaieraz onelakoa zan: *naizan* sea yo, *aiz* sé tú, *biz* sea él, *garean* seamos, *zara* sed, *bira* sean. Bayona-aldean beriz *naizen* edo *nizen*, *aiz*, *biz*, *garen*, *zara ta bira*. Irugaén adizkiak—*biz ta bira*—luzaroxeago bizi izan ziran. Besteak, záren artean ere, laster geratu ziran indarga ta ilik. Oihenartek 543·gaén atsotitzean *Aiz kortès*, dio, *aiz kortes guziekin eta nabasi gutirekin*, sé cortés con todos y familiar con pocos. Leizarragak ostera *aiz ofi* lenengo bi adizkien azkenki *n* gaineratuzion. Beste onenbeste egin zuen Axularék *zara adizkiaz*. AIZEN *adiskide* dio Leizarragak «sé amigo, reconcíliate» (Mat. V-25), AIZEN *han nik daŕakeadano* sé allí (estate allí) hasta que yo diga (Mat. II-13). Axularék *zu ZAREN ona vos* sed bueno (GERO 1.<sup>a</sup> 568-26, 2.<sup>a</sup> 566-26), *ZAREN handi edo ūpi* sed grande o pequeño (1.<sup>a</sup> y 2.<sup>a</sup> 397-24), *ZAREN beldur* tened miedo (Ibid. 299-17), *ZAREN prestu, euzu konzienzia ona* sed noble, tened buena conciencia (Ibid. 444 edo 442-16).

IV. Erara datorkigun izaki edo gauza polit bat oartztu dut Axularéen liburuaren lenengo bi argitaraldien artean. Lenengoak bi aldiz dakar imperativo zár eder *bira*, erderazko «sean». Idazki eder hura bigarrenez argitaratu zuenak, *bira* zer zen etzekialako-edo, *diren ezañ* zuen bere ordez. Axularék *eta hala BIRA iraganak*

*iragan, Axular-ordeak eta hala DIREN iraganak iragan* y así las cosas pasadas, pasadas sean (GERO ta GEROKO GERO 126-24). *Diren* au subjuntivo-gisa Axularék berak ere erabili zuen: *ezta arazoin lainkoaren kontra ibili direnak, hemen baino gehiago, bertze munduan ere DIREN bardin...*, que sean iguales (GERO 1.<sup>a</sup> 614-27). (1)

V. Axularék bezalaxe egin zuen Leizarragak ere *izan-en* imperativoaz: batean *biz* ta bestean *den*, batean *bira* ta bestean *diren* erabili. *Biz zuen hitza bai, bai* sea vuestra palabra sí, sí (Mat. V-27), *EZTEN han habita dadinik* no sea (no esté) allí quien habite (Act. I-20) (2); *irakasten ari dena, DEN instructione emaile* el que se ocupa en enseñar sea el que dé la instrucción (Rom. XII-7); *BIRA zuen geruneak gefikatuak* sean ceñidas vuestras cinturas (Luc. XII-35), *emaztedunak ere emazterik ezpalute bezala DIRADEN* también los casados sean como si no tuvieran mujer (I. Cor. VII-29).

*Refranes y sentencias-en idazlearen eta Oihenarten aiz* imperativo zaŕa eztute ez Leizarragak ez Axularék. Biak *aizen* erabili zuten *aiz* oŕen ordez, lentxeago ikusi dugunez.

Únnon baotedarabilzki eŕiaik gure egun auetan *biz* ta *bira* zár eder auek? Otoitzen amaierako *Amen* erderazko «así sea» dela kristau-ikasbidean ikasi ezpalute ¿zein giputz ta naparek otelekike *Alabiz-en* azken izkaitxo ori zer den? (3)

(1) Bigafen argitaraldian 616-27 eta 28.

(2) Ezten onen ordez *ezpiz* dakarkigu Oihenartek: *bere ahal dena EZPIZ bertzeren* (91-gafen atsotitza).

(3) Bizkaierazkoetan *alabiz* ezta ageri. *Alan izan dedila, Amen eta Aten bai* dira ango kristau-ikasbideetako *Amen-ak*,

VI. Adizki polít oni Axularék bi zentzun eman zizkion. ¿Nork eztaki erderaz «ya esto, ya lo otro» bezala «sea esto, sea lo otro» esan oi dugula? Frantzesez ere berdin : *soit qu'il le fasse, soit qu'il ne le fasse pas* sea que él lo haga, sea que él no lo haga. Axularék erderazko bata zén bestea edo biak—*sea ta soit*—buruan zituela, euskerazko *biz*, adizki izatetik conjunción disyuntiva izatera eramanez, esakeratxo bitxi onetan zentzun onezaz atera zuen : *konbertí bedi, onerabihur bedi, nahiz dela arimak egiterakoan, biz hats bakhotxeen dagoenean eta orduan ere enzuna izanen da* conviértase, viértase a lo bueno, sea al separarse el alma, sea cuando está en el último (único) aliento y aun entonces será oído (GERO ta GEROKO GERO 196-11).

VII. *Gara-tik*, ikusi dugunez, imperativotzat *garean* soñarazi zuten gure aurétkoak, Bayona-aldekoak *garen*. Euskalki onezazko subjuntivoko adizki záretan ere sarkizunezko (epentético) *e* berdin ageri da. Leizarragak : *on duk gu hemen GAREN* es bueno que estemos aquí (Mat. 17-4) eta *reprobo GARENTZAT* para que seamos réprobos (II. Cor. 13-7). Axularék : *ETZARELA bada zerori zeuretzat horein etsai handia* pues no seáis vos para vos mismo tan gran enemigo (GERO 622-18, GEROKO GERO 620-18). Len ikusi ditugu beste bi gertari polít, *DIRA oin duten diren bi* : *DIREN berdin ta DIREN gaixtoak*.

VIII. *Izan* aditzak, *gara* ta *zara* ta *dira-ren* gainera, baditu *a* azkenkitzat duten beste adizki batzuk ere : *da, za (n), gina, zina ta zira*. Lenengo biak eztute bizkaieraz epentlichartzen : *etorri da ta etorri zan-etik etorri dala ta zala*, iausi *danean ta*

*zanean*, il *daneko* ta *zaneko* esan daroagu. *Gareala* ta *zareala* bezala, eztu inork esaten etoñi *dealal* ta *zeala*, iausi *deanean* ta *zeanean*, il *deaneko* ta *zeanean*. ¿*Da* ta *za* oriek monosílabos diralako oteda? Beste irurak *gina*, *zina* ta *zira* Urduliz, Eibar ta Soraluzen ez, nik flexionario egiteko aztertu nituen beste alde guzietan, geienetan beintzat, *ginean* edo *giñean*, *zinean* ta *zirean*, *gineanean*... eta abar a epentesistzat artu ta muñaren (nucleoaren) *a e* itzulirik, esan oi dira.

IX. *Gina* ta *zina* oriek yatoriz giputzak ditugu bizkaieraz oraíntsua erabiltzen asiak, noizbait agertu nuenez (1). Gure egun auetan ere *gintzazan* eta *zintzazan* *ginean* ta *zinean* baino alde geiagotan darabilzki eriak. Toki batzuetan *i* ta *a ie* esaten oituak diralako—*gorie goña*-ren ordez—*gintzezan* ta *zintzezan* entzun oi dira. Oñati ta Leniz-aldean *gintzan* ta *zintzan* esaten du eriak. *Z* pluralizador ori iguina diote alde aietan. Naiz bat naiz amaiaka izan, beti diote aiek *daukat*, bein ere ez *daukadaz* edo *dauzkat*; beti *darabilt*, bein ere ez *darabildaz* edo *darabiizkit*. Lenago *gizon bat ikusi dot* bezala, *lau gizon ikusi dot* esan oi zuten; ez beste aldeetako antzera *ikusi dodaz*. Orain gipuzkerazk, *ditut*, *dituk*, *ditu...* eta abar esan oi dute; beirre ez ordea *ikusi gaitu*. *Ikusi gauz-en* ordez beti *ikusi gau*, *z* pluralizador ori baztertuz. Iketazko irabiamenean (en conjugación familiar) nonnaiko adizkietan ageri da lenagoko oitura zaia. Zuketan *etorri nintzan* esan oi dugu, iketan *etorri nintzoan* ta *nintzonan*; zuka *etorri zan*, ika *etorri zoan*

---

(1) Morfología Vasca, 642-10.

ta zonan. Iketan edozein aldetan esan oi du eñiak etori gintzoazan ta gintzonazan. Ezagun da, beraz, aldi batez zuketan ere *gintzazan* alde orotan esaten zela.

X. *Gina, zina ta zira* oriek guxitan dárabilzkigu sufijo conjuntivo bage; geienetan atzizkitzat *n, nean, neko, la, lako...* edo besteren bat dutela. Auñetik *ba-naiz* atzetik *-te* naiz *-de* dadukatenean, conjuntivo bageak direlako, eztute epentlich bear izaten. Leizarragak dio : *baldin gure aiten egunetan izan BAGINA* (Mat. XXIII-30), *zuetarano heldu izan EZPAGINA bezala* (II Cor. 10-14), *haragiaren araura ebilten BAGINADE bezala* (II Cor. 10-2). Sauguisek 66-gařen eran zahařean dio : *Hitzez berzerik behar da, haurak haziren BADIRA.* *Izan aditzak galdu dituen adizkiak eztira imperativo ta subjuntivokoak soilik, etorkizunekoak ere galdu ditu.*

Atzizkitzat *te* bat artuz eratzen zituen *izan* aditzak etorkizuneko uste auek : *naizate* seré, *aizate* serás ta *date, garate, zarate* ta *dirate*. *Te* atzizki onek conjuntivo eztelako, eztu edo (egokiago esateko) etzuen ez bizkaieraz *a* ez lapurtařez *e*, sarkizun-gisa, adizki orientan bear izaten. *Gara, zara* ta *dira-tik* eratorírik *gareala, zareanean, direalako* bizkaieraz, lapurtařez *garela, zarenean, direlako* orain ere erabiliařen, etorkizuneko *te* ořezaz etziran *gareate, zareate, direate* Bizkaian, *ez garete, zarete, direte* Lapurdin ta Benapároan eratu izaten. *Espaigniarat ioanen NAIZATE zuek baitharik*, dio Leizarragak, iré de vosotros a España (Rom. XV-28),... *ezen gehiagorik ezin AIZATE despenser* pues en adelante no podrás ser administrador (Luc. XVI-2), *hařapaturen GARATB he-*

*kin batean...* seremos transportados con ellos (I. Thes. IV-17). Oihenartek ere oso-osorik erabili zituen onelako adizkiak : *emaztea har dezana handitarik EZTATE* (no será) *etxean grina gabetarik* (135-gárefen atsotitza); *EZTATE ungi zerbitzatu, bere mainatareki nahi duena dostatu* (695-gárefa); 521-gárefean *nekearenak DIRATE ezteiak* dio, erderaz «las bodas serán incómodas». *Urthearekila, iragan DATEENO, kexa ezadila* no te quejes del año hasta que será transcurrido (677-gárefa). Gramatikalari garenontzat Oihenarten atsotitzetarik ederénetariko bat 524-gárefa da. Euskerak antzina nonnai eta orain Zuberon bizirik dadukan *te izan* aditzaren almenekoa edo potencial eta beste aditzai dagokien *ke argi-argi dakuskigu esakune oíretan*. *Hogei urtetan deus eztena* (el que no es nada a los veinte años), *hogei eta hamaíetan eztakiena* (el que no sabe a los treinta) *eta beñogeietan eztuena* (y el que no tiene a los cuarenta) *da iagoiti eztatena* (es uno que en adelante no será), *eztakikeena* (que no sabrá) *eta eztukeena* (que no tendrá).

XI. Gure egun auetan *gara, zara ta dira* oriek oin dituztela eríak Bayonaldean nonnai darabilzki *garela, zarenean, diren* eta auen gisako beste adizki-ren batzuk ere bai. Euskalki hura darabilten idazle zenbait ordea, fonetikazko lege au ongi eztazagutelako noski, eríaren oin-adizki *a-dun* oriek utzita, bestela ari dira idazten. Nire uste au sendoago ta sinisgaríago egiteko, azkenen argitaratua izan den *Eskualduna* asteroko papera irakurí dut. An batzuk, Axulaérek eta Oihenartek eta Leizarragak bezala, *gara ta zara ta dira idatzi* oi dute. Beste norbaitzuk beriz *garela, zarenean* ta *diren* orientatik *gare, zare ta dire* aintzat

eta ointzat artzen dituzte. Guziak, lantxo onetan ikusi dugunez, *e* ori epentesis dela yakinik, eriaren *gara*, *zara* ta *dira* artuko balitztze, egokiago, legezkoago ta euskarazkoago litzate beren idazkera.

Bizkaieraz deklinaziotik *e* epentetica kendu nai izan zuenak, eriaren *okotzean* ta *suñetik* eta *ileko okotzan* ta *surtik* ta *ilako* idazten asi zenak berak, aditzak duen *a* epentetica ta bere auñeko *a-ren* itzulpena kendu nairik, eriaren *gareala* ta *zareanean* ta *direan* alde bat utziz, *garala* ta *zaranean* ta *diran* legezkotzat artu zituen. Gaitxo au ulerterazago izan diten, len Bayonako *Eskualduna* bezala, orain Bilbo-ko *Euzkadi* aipatuko dut. Lan onen ziñibofoa egiten niarduela, egun artakoxe orialde batean, il onen bederatzigaen egunekoan, *Negar da bañe* izentzat duen idazki polit bat irakuñi nuen. Idazleak, bizi den eriko fonetica aintzat artuz, beste zenbaiten artean fonetismo auek darabilzki : 1.<sup>a</sup> *o* ta *a* beti *oa* egiten du, Batasunera bidean gabilzanok legetzat artua dugun arauz : *geroago ta barrurago*, *augazil moduzkoa*, *augazil yásekua* (auñeko *y* ta guzi), *besoak...* eta besteren bat dira *oa-dun* itzok. 2.<sup>a</sup> *e* ta *a*, Batasun-zaleok dakuskunez, eztira idazki oretan *ea*. Ona emen gertari batzuk : *sarjentu-legia*, *batian au ta bestian au*, *umiak*, *gaztiai*, *izentetan zanian...* eta abar. 3.<sup>a</sup> *i* ta beste vocal baten artean idazlea bizi den urian *dx* esan oi dutelako ta *dx* ori itsusi eritzita edo, Bizkaieraz inon ere esaten eztugun *ye* aintzat artuz, *axekiye*, *uriyan*, *biyar San Baleriyo geiyena*, *Euskalerriyeta-ko augazillak...* eta orien antzeko beste itz asko ta asko ditu lan polit oñek, arauzko ta Batasunera-bidearen erdi-erdiko *ia* bazteorean utzirik. 4.<sup>a</sup> Nire

lantxo onetan azalduriko fonetica bizkaierazko, noiz-nai ta nonnaikoari yaramonik egin bage, lan polít oretan esakera auek ezári ditu idazleak : *orain urte-txuak DIRALA, urenguan be an izaten ZIRAN mutil barrabanok, agertu ZIRANIAN, gorda-zibillak ZIRALATA...* eta besteren batzuk. Gernikan esan oi direlako, fonetica particular baizik eztiren *legia* ta *batian* aintzat artu dituenezkerro *g*zerengatik ezoteditu lan polít irakurgarí ori egin duenak aintzat artu, Gernikan eríak beretzat artuta dauzkan *direala*, *zirean*, ta *zireanean?* Baditeke berari edo besteren bati erantzun au bururatzea: *a* bati beste *a* bat gaineratzea cacofonia baizik ezta, eta auŕeko *a e* itzultzea, txikitau esan oi genduen bezala, neste-boŕaste, azak eta neste. Naiz *kako* naiz *mako*, bizkaierazko legea da *oa ea* ogite ori. Ogeitik gora ziran Flexionario bizkaino egiteko aratu ta aztertu nituen eríak. Bakar batzuetan, Bakio-aldean, eta beste nonbait artu nituen *dirala* *zirala* ta auen antzeko adizkiak, beste guzietan *direala* ta *zireala*; batzuetan *ea ia* eginez, *diriala* ta *ziriala*.

Au góra-bèra, legearen gainetik ibili nai duenari onetxen antzeko beste fonetica-lege batek aurpegi emango lioke. Bizkaieraz mugaitz edo artikulu eza-gunena, *a*, beste *a* bat azkenean duten izenai gaineratzean, izenarena *e* egiten du edozein erik. Legetxo au Zégaman ta Burundan ere bizi da. *Alba, aŕeba, neba, gona* eztira bizkaieraz eta bi alde orietan, beste euskalkietan bezala, *alaba aŕeba neba* ta *gona* esaten, «la hija, la hermana, el hermano, la saya» adiarazteko. *¿Nola ordea? Alabea, aŕebəa, nebea* ta *gonea*. Len itarantzun denez (según antes se ha indicado), *zireala* ta *direala* ta *gareala* cacofónicos badira, *alabea* ta

*aŕebea ta nebea ta gonea eztira eufónicos.* Aiek autsi bear badira, auek ezin osorik utzi litezke : autsi auek ere.

XII. *A ta a ea* egitea bizkarierazko agots-legea (ley fonética) dela esan dut. Eztira ordea, bizkaieraz ere, *a ta a beti ea* izaten. Emendik datorkio, uste du-danez, agots-lege oni ulerkizun edo semantica-kutsua. Lege au ezta belaŕiak eskaturiko fenómeno físico soil soila. Ezta, *aa* ori ebaki edo oguzi ezin duelako, agoak berak eskatzen digun fenómeno fisiológico biloiza. Geixeago da. Adizkietan eta izen mugatuetan (en flexiones verbales y en nombres determinados) baizik ezta lege ori bizi. Lege au nolabait ulerlegea (semanticazkoa) ezpalitz, agotsezkoia (fonetica utsezkoia) bagendu, *a ta a edozein itzetan ea izango lirake.* Zazpi atzizki (sufijos) dazaguzkit, *a* aurétilk dutela, itz baten azkeneko *a* yo ditzatenean, bizkaieraz ere, *ea* soŕarazten eztutenak. Ona emen atzizki auek zeintzuk diren : 1.<sup>a</sup> -ADA. *Zarla ta zapla ta Zamakola* bezalako itzai gaineratzean, eztugu zarteada, zapleada, *Zamakoleada* esaten. *Zartada* (varazo coup de baguette), *zaplada* (bofetada gifle), *Zamakolada* (insurrección de Zamakola) esan oi dira nonnai bizkaieraz ere. 2.<sup>a</sup> -ALA. *Atera ta yosa* (soportar supporter) bezalako itzai atzizki au gaineratzen zaienean, *aterala ta yoseala*-ren ordez *aterala ta yosaala* esaten dugu. 3.<sup>a</sup> AGO. *Gora ta bera ta atzera ta auŕera* lagun dituela inork eztu goreago bereago atzereago ta auŕereago esaten. Edozeinek gorago berago atzera-go ta auŕerago. 4.<sup>a</sup> -AR. *Bergara ta Zornotza* naiz *Gernika* ta *Araba* bezalako itzak eta atzizki au alkaŕi itsastean *Bergarar*, *Zornotzar*, *Gernikar* ta *Arabar* esan oi dugu; ez ordea *Bergarear*, *Zornotzear*, *Gernikear* ta *Arabear*. 6.<sup>a</sup> -ARI. *Pelota ta dantza*-tik

*pelotari ta dantzari* sortzen zaizkigu, *peloteari ta dantzeari* ez. 7.<sup>a</sup> -AÑEN. *Lotsa ta gura*, mugaitzarekin *lotsea* ta *gurea* badira ere, atzizki onezaz eztira *lotseařen* ta *gureařen*, *lotsařen* ta *gurařen* baizik. Onezaz gainera mugaitzak (artikuluak) berak ere eztu auréko *a* bi aldiz beintzat eztu *e* itzultzen : «las hijas, las hermanas, los hermanos (de mujer), las sayas» bizkaieraz ere eztira *alabeak, aŕebeak, nebeak, goneak*. A ori singular ta *k* egilea (apófivo) direnean, bai : *alabeak baietz dino* la hija dice que sí; *aŕebeak ezelz* la hermana que no... eta abar. Gauza bat non dagoen azaldu nai dugunean ere, *a* mugaitzak eztu auréko *a* aldatzen. *Gonan* en la saya, eztugu *gonean* esaten. Markinan, gazte nintzela, ikasi nuen-esakune batek auxe dio : *prakan prakan eztago gizona* no en todos los pantalones hay hombre *il n'y pas d'hommes dans tous les pantalons*. *Praka* pantalon da, *prakea* el pantalón; baina los pantalones eta en el pantalón eztira *prakeak* eta *prakean*, *prakak* eta *prakan* baizik. Markinan bertan bi *a* entzuten ditugu: *prakaak eta prakaan*. Berdin egin oi dute beste onelako itzetan ere. Markinako semeak guretzat *Markinaňak* dira; berentzat ez : berentzat *Markinaňarak*.

Bi anomaliatxo aipatu ditut len, nondikoak eta zertatikoak diren azaldu bage. Lenengoa: *ak atzizkia*, singular aciivo denean, auréko *a e* itzultzeo gai da (*aŕebeak esan dau*) eta plural denean *ez* (*aŕebak esan dabe*). ¿Anomaliatxo au zerengatikoa dugu? *Ak* ori, plural denean, beti tonu bagea delako oteda? *Praka bat* eta *prakak* (*ak* bera dator, atoniara), *gauza bat* eta *gauzak*, *aska bat* eta *askak*. ¿Atonia au otedugu anomaliatxo ořen ituria?. Bigařena: *izara* (sábana) tik *izarea* la sábana bai ta *izarean* en la sábana *ez*, *izaran* baizik; *prakea* bai ta *prakean* *ez*,

*gauzea bai ta gauzean ez, askea bai ta askean ez.*  
Anomaliatxo onen iturburua non da? Buruak txinpar-  
txo bat (inharfo bat) ere eztit eman nai.

Azkaingo lanioaren yáraipen luzexko oni emen  
amaia eman nai diot, uŕengo ilerako Euskaltzainai  
eritzi bat eskatzea utziz.

Bilbon 1930<sup>ko</sup> Abenduaren 10<sup>an</sup>.

AZKUE, apaizak.

# Euskaltzain eta Urgazle jaunen izen-abizenak eta zuzenbideak

(Nombres, apellidos y dirección de los académicos de número y correspondientes)

## EUSKALTZAIÑAK

Sr. D. Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue, Ribera, 5, *Bilbao*. +

» Arturo Campión, *Pamplona*. †

» Julio de Urquijo, Centenario, 1, *San Sebastián*. +

» Juan B. de Egusquiza, *Lequeitio* (Vizcaya). +

R. P. Raimundo Olabide, Colegio de PP. Jesuítas, *Orduña* (Vizcaya).

Mr. l'Abbé Pierre Lhande, Place du Président-Mithouard *París* (VII<sup>e</sup>).

Sr. D. Ramón Inzagariay, Jáuregui, 18, *San Sebastián*.

» Severo de Altube, *Guernica* (Vizcaya).

R. P. Dámaso de Inza, Convento de PP. Capuchinos, *Pamplona*.

Mr. Georges Lacombe, Boulevard de Saint Michel, 137, *París*.

Sr. D. Bonifacio de Echegaray, Plaza de Oriente, 6, principal, *Madrid*.

Mr. l'Abbé Jean Elissalde, *Laguingue* (B. B.) (Francia).

## URGAZLEAK

Sr. D. Odón de Apraiz, Calle del Prado, *Vitoria*.

» Federico de Belausteguiogitia, *Durango* (Vizcaya).

» Juan Cruz de Ibarguchi, *Eibar* (Guipúzcoa).

» Gabriel de Manterola, *Eibar* (Guipúzcoa).

» Nazario de Oleaga, Jardines, 1, 1.<sup>º</sup>, *Bilbao*.

» Amancio de Urriolabeitia, *Amorebieta* (Vizcaya).

» Pablo de Zamarripa, *Bermeo* (Vizcaya). +

» Toribio de Alzaga, Academia de Declamación Vasca, *San Sebastián*. +

» Juan B. de Larreta, Villa Azelain, *Soravilla* (Guipúzcoa).

» Manuel Lecuona, Seminario Conciliar, *Vitoria*.

» Isaac López Mendizábal, *Tolosa* (Guipúzcoa).

» Gregorio de Múgica, Caja de Ahorros Provincial, *San Sebastián*.

» Teodoro de Arburua, *Echalar* (Navarra).

» José de Cincunegui, Médico, *Zarauz* (Guipúzcoa).

» Nicolás Ormaechea, Ribera, 5, *Bilbao*.

R. P. Celestino de Caparroso, Convento de PP. Capuchinos, *Tudela* (Navarra).

- Dr. Fermín Irigaray, *Pamplona*.  
» Angel Irigaray, *Pamplona*.  
R. P. Manuel de Arriandiaga, *Buen Suceso*, 18, *Madrid*.  
Sr. D. Ramón Menéndez Pidal, *Recoletos*, 20, *Madrid*.  
» Américo Castro, *Recoletos*, 20, *Madrid*.  
R. P. Buenaventura Oyeregui, PP. Capuchinos, *Fuenterrabía* (Guipúzcoa).  
» José Azcue, PP. Franciscanos, *Zarauz* (Guipúzcoa).  
» Policarpo de Iraizoz, PP. Capuchinos, *Lecaroz* (Navarra).  
Sr. D. José Miguel Barandiarán, Rector del Seminario de Aguirre, *Vitoria*.  
» Miguel Inchaurrondo, Carrera de San Jerónimo, 38, *Madrid*.  
Dr. J. Etchepare, *Les Aldudes* (B. P.) (Francia).  
Mr. G. de St. Jayme, Villa Zaldi-Choury, *St. Palais* (B. P.) (Francia).  
Dr. Dourisboure, *St. Péé sur Nivelle* (B. P.) (Francia).  
» Larrieu, *Monfort l'Amaury* (Seine et Oise) (Francia).  
Mr. l'Abbé Urruztoy, Curé de *Barcus* (B. P.) (Francia).  
» Henri Gavel, Chalet du Fronton, Place Lamothe, *Anglet* (B. P.) (Francia).  
» Comt. de Marièn, Presidt. de la Soc. Sciences, Letres et Arts, *Bayona* (Francia).  
» Albert Leon, Avenue Marthe-Jean, Les Arenes, *Bayona* (Francia).  
» J. Saroihandy, Prof. Lycee Louis-le Grand R. St. Jacques *París*.  
» l'Abbé Moulier, Vicaire a *St. Pierre d'Irube* (B. P.) (Francia).  
» Conservateur du Departemt. des Impr. Bibliot. National, R. de Richelieu, *París*.  
Dr. Constantin, *Tardets* (B. P.) (Francia).  
Mr. l'Abbé Larrasquet, R. de Lille, 57, *París*, (7<sup>e</sup>).+  
» Pierre Laflitte, Seminaire de *Ustaritz* (B. P.) (Francia).  
» Louis Dassance, *Ustaritz*, (B. P.) (Francia).  
Pf. Dr. J. Jud, Sprensenbühlstr. 14, *Zurich*, 7 (Suiza).  
Mr. l'Abbé Chanoine Daranatz, Rue des Basques, 42, *Bayona* (Francia).  
» C. Uhlenbecbk, Wijersstraat, 10, *Amersfoort* (Holanda). ↑  
» Eh. Linschmann, Herzogl-Bibliothekar, *Meiningen* (Alemania).  
» Heinrich Winkler, Hansastrasse, 18i, *Breslau* (Silesie).  
» Gerhard Bähr, Meterstr, 15, *Hannover* (Alemania).